

Euskararen hitz hurrenkeraren garaikaketa baterako materialak

(Materials for a periodization of Basque Word Order)

Martínez Areta, Mikel

Univ. del País Vasco / Euskal Herriko Unib. UPV/EHU.

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Unibertsitateen

Etorbidea, 5. 01006 Gasteiz

josemiguel.martinez@ehu.es

BIBLID [1137-4454 (2011), 26; 343-379]

Jaso: 2011.04.06

Onartu: 2011.12.30

Artikulu honetan euskararen hitz hurrenkeraren inguruko interpretazioen laburpen bat egiten da, ikuspegi historiko batetik zein historiaurreko batetik. Plano sinkronikoan, oinarizko hurrenkera SOV dela defenditzen da, nahiz hurrenkera hau ez den inola ere zurruna. Plano diakronikoan, euskara komuna dagoeneko SOV dela proposatzen da, eta fase aurrekomunean kokatu beharreko SVO > SOV garapenaren azalbide bat iradokitzen da.

Giltza-hitzak: Euskera. Hitz hurrenkera. Diakronia. Garaikatztea. OV / VO aldakortasuna. Euskal testu zaharrak.

En el presente artículo se hace una breve interpretación acerca del orden de las palabras del euskera, tanto desde un perspectiva histórica como prehistórica. En el plano sincrónico se defiende que el orden básico es SOV, si bien este orden no es rígido en absoluto. En el plano diacrónico, se propone que el euskera común es ya SOV, y se sugiere una explicación para la transformación SVO > SOV que habría de situarse en la fase precomún.

Palabras Clave: Euskera. Orden de las palabras. Diacronía. Situar. OV / VO variabilidad. Textos vascos antiguos.

Dans cet article on fait une brève interprétation de l'ordre des mots de l'euskera, aussi bien d'un point de vue historique que préhistorique. Sur le plan synchronique, on défend la thèse selon laquelle l'ordre est SOV, bien que cet ordre ne soit absolument pas rigide. Sur le plan diachronique, on propose que l'euskera commun soit SOV, et l'on suggère une explication pour la transformation SVO > SOV qui devrait se situer dans la phase pré commune.

Mots-Clés : Euskara. Ordre des mots. Diachronie. Situer. OV/VO variabilité. Textes basques anciens.

1. SARRERA¹

Aipatu behar bagenu bi ezaugarri, euskara Europa mendebaldarreko gainontzeko hizkuntzetatik bereizten dutenak, gutako askok honako biak aipatuko genituzke: ergatiboa eta SOV hitz hurrenkera. Lan honetan bigarrena izango dut aztergai nagusi, lehena ere agertuko den arren. Lehen atalean OV/VO parametroa –bi paralelo tipologikorekin– eta galdegaiaren printzipioaren deskripzio labur bat egingo dut, biek planteatzen dituzten galdekizunak eta polemikak barne. Bigarren atalean euskararen hitz hurrenkeraren arazo diakronikoei helduko diet, batetik orain artean proposatu diren hipotesiak aipatuz, bestetik hitz hurrenkeraren parametroak banaka iruzkinduz, eta azkenik garai aurrekomuneko SVO > SOV aldaketaren hipotesi bat planteatuz.

Ez dut ikerketa estatistiko handirik egin, baina bai euskal testu zahar batzuetako O(s)V / VO(s) parametroaren zerrendaketa batzuk, egokitzat jo dudan metodologiaren bidez (ik. Eranskina). Hortaz, arloari De Rijk-ek (1969/1980) edo Hildalgok (1995, 1999, 2009) egindako ekarpen mamitsu eta eskergeen alboan, hau hausnarketa xume bat besterik ez da izango.

2. OV VS. VO EUSKARA HISTORIKOAN²

2.1. Euskararen hitz hurrenkeraren ezaugarri orokorrak

Autoreen arteko desadostasunak gorabehera (ik. 2.4.), Altube eta Azkueren garaietatik onartzen da euskararen hitz hurrenkeran bi printzipio nagusi daudela:

- 1) Testuinguru neutroetan, hurrenkera oinarrizko edo ez-markatua SOV da.

1. Lan hau hiru Ikerketa Proiektu kolektiboren esparruan eta babespean egin da: 1) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzaturako eta Joseba Lakarra katedradunak zuzendutako "Monumenta Linguae Vasconum III: historia, crítica y edición de textos vascos" (FFI 2008-04516); 2) Eusko Jaurilaritzak finantzaturako, eta Joaquín Gorrochategui katedradunak koordinaturako "Historia de la Lengua Vasca y Lingüística Histórico-Comparada" (HLMV-LHC), Ref. GIC 10/83, IT 486-10; eta 3) UPV/EHUk finantzaturako Prestakuntza eta Ikerketa Unitatea (UFI 11/14; Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara).

2. Oharpen metodologiko bat egin behar dut hemen. Hitz hurrenkeraren bibliografiaren terminologia anitza izan da Greenberg-en garaietatik. OV / VO parametroan, O objektua zen hasiera-hasieratik, hau da, osagarri zuzena (ing. *direct object*). Baina hitz hurrenkeraren ikuspegitik beste edozein osagarri (ing. *complement*) ere garrantzitsua denez (*I bought the book* zein *I came from the pub*), corpus joraketan noiz OV / VO formalismoa, noiz XV / VX formalismoa erabili da (X aditzaren edozein osagarri delarik, objektu zuzena edo beste edozein). Eranskineko azterketa kuantifikatzaileetan azterbide honetaz baliatu naiz ni, bigarren zutabeetan objektu zuzenen indizeak –eta hauek soilik– sartu arren. Hauetarako, OV / VO formalismoa erabili dut. Gainontzeko zutabeetan zenbatu diren agerpenak edozein osagarrirenak direnez (objektu zuzenak barne), Os (= Osagarri) laburdura erabili dut hauetarako (eta X saihestu, hainbat lanetan X ikurrak 'adjuntu' adierazten baitu). Lanean zehar, OV / VO formalismoa erabiliko dut aditzaren osagarria objektu zuzena soilik denean (adib. 2.2. atalean), baina bestelako osagarriak ere kontuan hartzen direnean (*liburua erosi nuen* zein *tabernatik etorri nintzen*; adib. 2.4. atalean eta Eranskinean), OsV / VO formalismoa (Os = Osagarri) erabiliko dut beharrezkoa den kasuetan.

- 2) Testuinguruak diskurtsoa edo esaldia baldintzatzen badu, esaldiaren fokua, edo *rhema* (euskaraz galdegaia), aditzaren aurre justuko kokagunean kokatzen da³.

Hala ere, egun onartu ohi da puntu honetan Altubek eta Azkuek zurrunegei jokatu zutela, zeren bi printzipiook usu ez baitira betetzen. Betetzen ez diren kasuak Altubek eta Azkuek erdararen eraginaren bidez azaltzen dituzte, eta euskarara ez jatorratat jo⁴. Ikusiko dugun legez, hau sinplifikazio nabarmena da⁵, eta hobe dugu salbuespenak aurreko printzipioen klausula baten moduan ulertu, hirugarren printzipio baten formapean planteatzea dezakeguna:

Aurreko bi printzipioak ez dira irmoak. Zenbait testuingurutan, edo batzuetan edozein testuingurutan definitzen errazak ez diren hainbat arrazoiengatik, ez dira betetzen.

- 3) Aldakortasun hau tipikoa da *scrambling languages* direlakoetan (latina eta grekoa kasu). Hauetan, esaldi mailan osagaien hurrenkera librea da. Osagaiak kokatzeko askatasun hau, hala ere, ez ohi da ez erabatekoa, ez nolana hikoia, baina hurrenkera zurrunegei hizkuntzetan hitz hurrenkera ezberdinak normalean gramatikak edo agramatikak diren bitartean, hurrenkera librekoetan gramatika bainoago, pragmatika dugu, aukera ezberdinen artean hautatzerako orduan, gure hautaketa baldintzatzen duen faktorea. Bestela esan, zenbait aukeraren artean, denak dirateke gramatikak, baina bakoitzak *ñabardura* bat adieraz dezake. Euskararen aukeraren arteko printzipioa sarri asko informazio ezauna eta ezezagunaren arteko harremanetan oinarritzen denez, Osa Unamunok (1990: 21) “ezagun-ezezagunen testu-jokoak” deritze hitz hurrenkeraren nahasmenoi.

Baina gerta daiteke, eta maiz gertatzen da, jatorriz pragmatikaren esparruan kokatu beharreko oposaketa batek denboraren poderioz balore kontrastiboa, are gramatikala, hartzea. Hortaz, pragmatikak baldintzatua gramatikaren menpera igaro daiteke. Pragmatika > (onargarritasuna >) gramatika igarobide honetan rol handia jokatzeko duen faktore bat intonazioa da. Elementu honen azterketa sakon bat, hala ere, baztertu behar dut hemen.

3. Altubek (1929: 6): “La regla principal acerca del empleo en la oración del miembro nominal inquirido, es que debe ser colocado inmediatamente antes del verbo”.

4. Altubek (1929: 7): “En el lenguaje popular vasco pocas veces se infringe la regla que acabamos de exponer, fuera de algunas zonas euskaldunas que, desgraciadamente, empiezan a sentir ya la invasión del erderismo que nos ocupa”.

5. Hidalgok (1999: 394) Mitxelenaren (1953b/1988: 877) honako hitzok aipatzen ditu: “Labur esateko, Altube jaunak finkatutako legeak, euskarak gorde bear lituzkenak izango dira agian, baina ez euskerak gorde edo gordetzen dituenak”.

2.2. OV / VO parametroa, euskaraz

Hona hemen XVI-XVII. mendeetako testuetan ageri diren OV/VO aldakortasunaren adibide batzuk⁶:

- | | | | |
|-----|----|---|--|
| (1) | a. | iustitia handibat eta rigorosbat eguinendut ordiã | (Tartas, <i>OHB</i> , 59) |
| | | eçarricodut, eta ehortcicodut çurê gorpitça | (Tartas, <i>OHB</i> , 61) |
| | b. | guciac egotz citzan templetic | (Leiz., <i>S. Ioan</i> . III, 15) |
| | | eriden citzan templean idi eta ardi eta vsso columba salçaleac | (Leiz., <i>S. Ioan</i> . III, 14) |
| | c. | Bigarren gurutzearen señailea eguiten du agoan eta Iesu Christoc [...] yçulcendu oguia vere gorpucean | (Beriain, <i>Trat.</i> 5.kap.)
(Beriain, <i>Trat.</i> 1.kap.) |
| | d. | Silveroc eta Doridoc [...] utra aseguin andia artu even euren bioçetan | (Laz., <1153v>) |
| | | Onela bada Doristeoc eta Sirenac eguin even euren byajea | (Laz., <1152r>) |
| | e. | Leya ta erurra, / çaria dacar escura | (RS, 512) |
| | | Eachac dacar aro ona | (RS, 293) |
| | f. | çe pecatu eguiten dau | (Kapanaga, <i>Exp. br.</i>) |
| | | cerren emaiten deuscu laungoicoac guztia | (Kapanaga, <i>Exp. br.</i>) |

OV/VO aldakortasuna edozein testuingurutan ager daiteke, baina testuinguru batzuetan VO hurrenkera hobesteko joera dago. Honek usu O-aren luzerarekin dauka zerikusirik. Hala nola, O hori kompletibozko perpausa baldin bada, maiz aditzaren atzean kokatuko da. Honelakoetan OV ere zuzena da, baina zenbait perpaus txertatu badira, OV hurrenkerak entzulearen ulermena zail dezake:

- | | | |
|-----|----|--|
| (2) | a. | Uste dut _v [etorriko dela] _{O,Konp} |
| | b. | [Etorriko dela] _{O,Konp} uste dut _v |
| | c. | Kepak esan dit _v [Amaiak esan diola _v [bihar hondartzara joango direla] _{O,Konp}] _{O,Konp} |
| | d. | ?? Kepak [Amaiak [bihar hondartzara joan direla] _{O,Konp} esan diola _v] _{O,Konp} esan dit _v |

(2d) ez dago gramatikalki txarto, baina hainbeste korapilatzen du esaldiaren egitura (hiztuna zein entzulearentzat), ezen hitzun gehienek onartezintzat interpretatuko luketen. Hala ere, OV hurrenkera O-a kompletibozko perpausa denean

6. Lan honen aztergai nagusia garapen historikoa eta aurrehistorikoa denez, batez ere testu zaharrak (XVI-XVII. mendeetakoak) erabiliko ditut nire analisisian. Eta, olerkian neurkera hitz hurrenkera ezberdinen artean hautatzeko faktore bat datekeela kontuan harturik, gehien bat prosazko testuak –bai eta elkarrizketak eta errefrauak– izango dira.

ez da atzo goizeko egitura bat euskararen historian. XVI. mendean, mendebaldeko zein ekialdeko testuetan topa dezakegu OV hurrenkerako esaldirik, non O-a konpletibozkoa den:

- (3) a. [çerren mylla bider gueyago dala dan vaño] _{O,Konp} esango dabee _V
b. [mjlla ducat bidalduco ditugula vrte onetan] _{O,Konp} njc vste _V
c. [obeto lagunetan çaytuela mundurasco seme lealoc] _{O,Konp} ençuten dot _V
d. ene borondatea da [oguetá amar edo berroguey mila marabdj errenta davela] _{O,Konp}

[Zumarragaren gutuna, 1537; ik. Sarasola (1983/1990: 97-102)]

(3a, b, c)-k O.KonpV hurrenkera agertzen dute, (3d)-k, ostera, VO.Konp. Era berean, Leizarragarengan O.KonpV sarri ageri da:

- (4) a. eta baldin presta badieceçue [rendaturen drauçuela] _{O,Konp} sperança duçueney _V (Leiz., Luk VI, 34)
b. [[duela] _{O,Konp} uste duena-ere _V] _{O,Erl} edequiren çayo hari (Leiz., Luk VIII, 18)

Bertsua kausitzen dugu O-an erlatibozko perpaus bat –hemendik aurrera O.Erl– dagoenean. Zenbat eta hau luzeagoa izan, edo zenbat eta gehiago konbinatu erlatibozko edo beste motatako menpeko beste perpausekin, orduan eta aukera gehiago izango ditugu O-a V-aren ondoren jartzeko:

- (5) a. [Gomendatu zenidan autoa] _{O,Erl} erosi dut _V
b. Erosi dut _V [gomendatu zenidan autoa] _{O,Erl}
c. [[Madrilen daukazun lagunak] _{O,Erl} gomendatu zidan _V autoa] _{O,Erl} erosi dut _V
d. Erosi dut [[Madrilen daukazun lagunak] _{O,Erl} gomendatu zidan _V autoa] _{O,Erl}

Laurak dira gramatikalak eta erabiliak. Baina (5a eta c) Altube eta Azkueren arauen arabera euskarak propio dituenak diren arren, ahozko mailan (5b eta d) hobetsi ohi dira. Edo behintzat, ahozko jardunean topatuko dugun (5a) / (5b) eta (5c) / (5d) ratioak txikiagoak izango dira *Autoa erosi dut* / *Erosi dut autoa* ratioa baino.

Esandakoak balio du, orobat, aditz jokatugabeko esaldietarako.

- (6) a. Hori _O esateko _{V,JG}, ez zenidan deitu behar.
b. Esateko _{V,JG} hori _O, ez zenidan deitu behar.
c. [Etorriko ez zinela eta etxean geratuko zinela] _{O,Konp} esateko _{V,JG}, ez zenidan deitu behar.
d. Esateko _{V,JG} [etorriko ez zinela eta etxean geratuko zinela] _{O,Konp}, ez zenidan deitu behar.

Berriro ere, denak dira gramatikalak eta erabiliak, baina (6a) (6b) baino naturalxeagoa den bitartean, (6d) (6c) baino gehiago erabiliko da ahozko jardunean. Ideia da, beraz, ezin eman daitekeela informazio gehiegi aditza aipatu gabe. Neurri bateraino (O-a ez bada oso luzea), hau toleragarria da, eta OV hurrenkera onar daiteke, baina O-a luzea bada hobe da lehen V-a eman, eta gero, aditza –predikatua ren muina, nonbait– behin ezaguturik, O. Konp-a, O. Erl-a edo beste edozein O luze⁷. Arrazoa bide da SO (luzea)V esaldiek ezkerretik eskuinerako prozesamendua eten egiten dutela, epe laburreko memoria gehiegi zamatzen baitute. Bestetik, esaldi batean V-ak oinarritzko informazioa dakar (predikatua ren elementu nagusia da). Amaieran jartzeak, aurrean O pottoloa jarritz, inplikatzan du esaldia ren muina oinarritzko informazio hori ezagutu gabe entzungo dugula⁸.

Tipologian hau ez da printzipio irmo bat, zenbait hizkuntzatan ‘V-a amaieran’ legea zorrotz betetzen delako (japoniera kasu), O-aren luzera zein-nahi ere den. Baina O luzeak V-aren ondorengo (ezohiko) kokagunera mugitzea ez da inondik ere fenomeno bitxia. Alemana, adibidez, ez da oro har SOV hizkuntza, baina menpeko perpausetan OV hurrenkera da gramatikala. Perfektoan, egitura modaletan, edo aditz esparruak pieza bat baino gehiago dituen perpaus orotan (menpeko nahiz nagusietan) zama lexikoa dakarren piezak amaieran agertu behar du. Hala ere, O-a konpletibozko perpausa bada, orduan aditzaren ondoren agertuko da. Perfektoan gertatzen dena izan bedi prozesuaren irudi:

- (7) a. Ich habe etwas_O gedacht_{V,JG}
‘Zerbait pentsatu dut’
- b. **Ich habe gedacht_{V,JG} etwas_O
(id.)
- c. **Ich habe, [dass du mir helfen kannst,]_{O,Konp} gedacht_{V,JG}
‘Pentsatu dut lagun diezadakezula’

7. Honen aldeko argudio enpirikoa Eranskinen OsLuze.V / V.OsLuze zutabearen aurkezten dut. OsLuzeak konpletibozkoak (-Ja bidez nahiz galderazkoak) eta erlatibozkoak (-n nahiz *zein, nola, non* eta abarrekoen bidez eratuak) dira. Zutabe horietan ageri diren ratioak ikusita –batez ere beste zutabeetako ratioekin erkatzen ditugun heinean–, nabari da Os-a luzea denean VO-s-rako joera nabarmena dela, kasu batzuetan ikaragarria. Soilik Zumarragarengan topatzen ditugu OsLuze.V gehiago, V.OsLuze baino (eta testu laburra izaki, hau ez da esanguratsua). Hidalgo (1995, 1999) ez du O-aren luzeraren parametroa kontuan hartzen; bai ordea esaldiaren osagai kopurua, eta honakoa markatzen du (Hidalgo 2004: 167):

“Nolanahi, datu hauek guztiak zerikusi estua dute esaldien luzerarekin. Zenbat eta osagai gehiagoko esaldia, orduan eta aukera gehiago esaldi nagusiak bere pisu informatibo nagusia aditzaren ondoretik emateko, eta mendeko esaldiak osagaiak erakusteko aditzaren ondoretik” (ik. Hidalgo 1999 datu zehatzetarako).

8. 70eko hamarkadako hizkuntzalaritzan honi emandako terminoa ‘Heavy NP Shift’ dugu. Baina fenomeno hau arakatzeko gehien landu zen hizkuntza ingelesa da, SOV ez dena. Hizkuntza honetan, esaldi formako S batzuk, zenbait kasutan, V-aren ondorengo kokagunera gibeleratzen dira, euren lekuan subjektu proleptikoa jarrita: **Is that the world is round obvious to you?* → *Is it obvious to you that the world is round?* Baina batzuetan mugimendu hauek predikatuko elementuen artean ere gerta daitezke: *Joe gave a book that was about the skinning of cats in Alberta between 1898 and 1901 to Berta* → *Joe gave to Berta a book that was about the skinning of cats in Alberta between 1898 and 1901* (baina *Joe gave a book to Berta*). OLuze.V > V.OLuze mugimendua sustatzen duen mekanismo berbera da.

Ich habe gedacht, _{V,JG} [dass du mir helfen kannst] _{O,Konp}
(id.)

Era berean, erlatibozko perpausak eratzeko estraposiziora jotzen da. Aurreko (7a) esaldia, esaterako, (8a) forma izango luke alemanez. (8b) ere ondo dago, baina horrelakoetan usu (8a) bezalakoetara jotzen da:

- (8) a. Ich habe [das Auto] _{O,Erl(1)} gekauft, _{V,JG} [das du mir empfohlen hast] _{O,Erl(2)}
'Gomendatu zenidan kotxea erosi dut'.
b. Ich habe [das Auto, das du mir empfohlen hast,] _{O,Erl} gekauft _{V,JG}
(id.)

OV derrigorrezkoa da jokatugabeko aditzetan –helburuzkoetan, esaterako–, O-a ez bada O. Konp edo O. Erl. Kasu honetan, O. Konp eta O. Erl aditzaren eskuinera mugitzen da:

- (9) a. Um das _O zu sagen _{V,JG}, hättest du mir nicht anrufen sollen.
'Hori esateko, ez zenidan deitu behar.'
b. **Um zu sagen _{V,JG} das _O, hättest du mir nicht anrufen sollen.
(id.)
c. ** [Um, [dass du nicht kommst und zu Hause bleibst,] _{O,Konp} zu sagen] _{V,JG}
hättest du mir nicht anrufen sollen.
'Etorriko ez zinela eta etxean geratuko zinela esateko, ez zenidan deitu behar.'
d. [Um zu sagen _{V,JG}, [dass du nicht kommst und zu Hause bleibst] _{O,Konp}]
hättest du mir nicht anrufen sollen.
(id.)

Alemanez aditzaren ondorengo kokagunerako mugimendua bultzatzen dezakeen beste prozesu bat 'post-pentsamendua' dugu (ing. 'afterthought'). Hitzuna, perpaus edo sintagma bat amaitzen duenean, jabe daiteke zerbait falta zaiola, eta gehi dezake, hortik sortzen den egitura gramatikala parametro estandarretan zuzena ez izan arren. Ikus ditzagun ondoko esaldiok:

- (10) a. Der Mann, [den ich gestern Abend gesehen habe]
'Atzo gauean ikusi nuen gizona'
b. Der Mann, [den ich gesehen habe...] gestern Abend
'Ikusi nuen gizona... atzo gauean'
c. **Der Mann, [den ich gesehen habe gestern Abend]
'Ikusi nuen gizona atzo gauean'
[Vennemann (1973), Hyman (1975: 119-121)-en aipatua]

Gramatikaren arabera, egitura zuzena (10a) da. (10b) ez da zuzena gramatika parametro estandarren arabera, baina onartzen da hiztunari 'atzo gauean' hori zehaztea ahaztu bazaio. Kasu honetan, baina, tonu-bihurgune burujana

bea behar du. (10c) aurrekoa bezalakoa da baina ez dauka ez etenik ez tonu-bihurgunerik. Agramatikala da, printzipioz, baina Vennemann-en (1973) arabera gero eta ohikoa da ahozko jardunean. Denboraren poderioz, beraz, (10c)-ren gramatikalizazioa inplika lezake. Markatu behar da aditzaren ondoren jar daitezkeen post-pentsamenduok ez direla funtsezko informazioa, nola edo halako zehaztapenak baizik: adjuntoak, adizlagunak, aposizioak, etab. (ingl. 'non-essentials').

Euskalarioi aski interesgarri suerta dakigukeen beste kasu bat kru hizkuntza bantuarrean kausi dezakegu. Kru-z, perpaus nagusi baieztokoetako hurrenkera SVO dugu. Baina ezeztoketan SOV da, baita O-a erlatibozko perpausa denean ere (euskararen alderantzizkoa, beraz). Ondoko esaldiotan ikus dezakegu:

- (11) a. ó dí_v kò nă_o
 hark jan zuen arroz DEF
 'Hark arroza jan zuen'
- b. ó sé kò nă_o dí_v
 hark NEG arroz DEF jan zuen
 'Hark ez zuen arroza jan'
- c. ó dí_v [kò jú nă tĕ à nă]_{o,ErI}
 hark jan zuen arroz ume DEF erosi zuen ERL DEF
 'Hark umeak erosi zuen arroza jan zuen'
- d. ó sé [kò jú nă tĕ à nă]_{o,ErI} dí_v
 hark NEG arroz ume DEF erosi zuen ERL DEF jan zuen
 'Hark ez zuen umeak erosi zuen arroza jan'

[Hyman (1975: 129-132)]

Haatik, erlatibozko perpausa post-pentsamendua bada, orduan erlatibozko perpausa aditzaren ondorengo kokagunera mugí daiteke, tonu-bihurgune buruja-bearekin, (12)-n bezala:

- (12) ó sé [kò nă]_{o,ErI} dí_v [jú nă tĕ à nă]_{o,ErI}
 hark NEG arroz DEF jan ume DEF erosi ERL DEF
 'Hark ez zuen arroza jan... umeak erosi zuena'

[Hyman (1975: 129-132)]

Gauzak are gehiago korapilatzen dira beste erlatibozko perpaus bat txertatzen badugu. Ikus ditzagu (13a, b, c):

- (13) a. ó dí_v [kò [jú ní jé á nă] tĕ à nă]_{o,ErI}
 hark jan arroz mutil nik ikusi ERL DEF erosi ErI DEF
 'Hark nik ikusi nuen mutilak erosi zuen arroza jan zuen'

b. ó sé [kò nă] _{O,ErI} dí _v [[jú ní jé á nă] tề
 hark NEG arroz DEF jan ume ni ikusi ERL DEF erosi
 à nă] _{O,ErI}
 ERL DEF
 ‘Hark ez zuen nik ikusi nuen mutilak erosi zuen arroza jan’

c. ó sé [kò nă [jú ní jé á nă] tề à
 hark NEG arroz DEF ume ni ikusi ERL DEF erosi ERL
 nă] _{O,ErI} dí _v
 DEF jan
 (id.)

[Hyman (1975: 129-132)]

(13a, b) informatzaileak emandako esaldiak dira. (13b) (13a)-ren ezeztape-na da, eta ikusten denez, alemanez erabiltzen den estraposizio berbera erabil-tzen da. (13c) ez zuen informatzaileak erabili, baina (13a) ezeztatzeko kruaren araeui hobekien legokiokeen aukera litzateke. Hyman-ek haren gramatikaltasu-nari buruz galdetu zionean, informatzaileak erantzun zion izan ere hori ‘benetako krua’ zela, bere aitak aspaldi hitz egiten zuena. Dirudienez, beraz, informatzaile honen aita aski altubetarra zen.

Azpiatal honetan aurkeztutako argudioak laburbiltze aldera, euskara, alemana eta kruko adibide hauek guztiok zera uzten dute agerian: ikuspegi pragmatiko-kog-nitibo batetik, OV hizkuntza batzuk (edo VO hizkuntzetako OV egiturek) O luzeegiak saihesteko joera agertzen dutela. Arrazoia da edozein esalditan V-a funtsezko ele-mentua dela. O-aren zehaztapen andana luzea entzutea, harekin zer gertatzen den jakin gabe, ez da batera erosoia, ez entzulearentzat, ez hiztunarentzat⁹.

9. Zilegi bekitt Hawkins-en (1983: 102-103) aipu luzexka baina argigarri hau sartzea:

“Clausal complements are heavy subordinate constituents of a sentence (in a way that is quite consistent with our heaviness criteria in Section 3.4.1.1. [‘Heaviness Serialization Principle’ delako-ari buruz ari da, zeinen arabera NP baten barnean buru-osagarri / osagarri-buru hurrenkerak posible izatera, zenbat eta astunagoa (hots, luzeagoa) izan osagarria, orduan eta posibilitate gehiago izango dituen buruaren ondoren agertzeko; astuntasun honen hierarkia: Rel > Gen > Adj > Dem/Num]), and they argue that the heavier such a constituent, the greater is the load on temporary memory as it is processed. The position of a heavy subordinate constituent within the matrix S then has consequences for the relative ease with which the argument – predicate relations of the matrix S can be recognized, and the heavy constituent correctly integrated into the matrix. A heavy medial complement is worst because it interrupts the left-to-right processing of the matrix, maximizing the argument – predicate recognition problem, and rendering most acute the temporary memory load posed by the heavy constituent. A heavy initial complement is better because, although it delays the left-to-right processing of the main clause, it does not necessarily interrupt it, and argument – predicate relations can be more clearly recognized. And a final heavy complement is best of all, because it occurs at a point where the matrix argument – predicate relations have already been established”.

Ik., ingeleseko zein beste hizkuntza batzuetako datuetarako, Grosu & Thompson (1977). Euska-ra bezala ergatiboa den inuit hizkuntzarako ere, interesekoa da Manning-ek (1996: 82) dioena, hitz hurrenkeraz ari dela:

“Complement clauses generally occur to the right of the verb. Light complement clauses can also precede the verb. It appears likely that the base position of complement clauses is preverbal, ...

2.3. Galdegaia

Euskararen hitz hurrenkeraren beste printzipioa galdegaiarena da (hemendik aurrera, = GG): hots, zama predikatibo astuna edo informazio berria dakarren osagaia, aditzaren aurrean kokatu behar dugu. Hona hemen testu zaharretatik ateratako adibide sorta xume bat:

- | | |
|--|---------------------------------|
| (14) a. Eneac dira faltac | (Axular, <i>Gero</i> , 1) |
| [Villasante (1980: 240)] | |
| b. Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena | (Etxepare, XV, 4) |
| [Mitxelena (1981b/1988: 673)] | |
| c. guré lencoa baita biciaren eta herioaren lau na, harc emanen du beré gloria çuré arimari | (Tartas, <i>OHB</i> , 64) |
| d. Guré bicia, guré dembora oro hirur gauçac eguiten duté: igarenac, presentian denac eta gitecoac | (Tartas, <i>OHB</i> , 98) |
| e. Ecen non baita çuen thesaura, han içanen da çuen bihotza ere | (Leiz., <i>Luk.</i> V, 36) |
| f. Non-ere içanen baita gorputza, hara bilduren dirade arranoac-ere | (Leiz., <i>Luk.</i> XVII, 37) |
| g. Hitzaç eta lomaç aissiaç eramaten du | (Volt., [237]) |
| h. bada launau verau daucagu oray Mezan presentean | (Berriain, <i>Trat.</i> 1.kap.) |
| i. medeçinea çu çarean gero | (Laz., <1152v>) |
| j. Andia da ene mina, / esan nay ta esan ezina | (RS, 114) |
| k. Gausaric obena falta xaco beror<r>i guela onetan | (Mikoleta, <i>Elk.</i> 144) |

... but that most clauses (being relatively heavy) appear in a right extraposed position. In general, heavy constituents can be extraposed after the verb”.

Hemendik sor lekigukeen zalantza bat honakoa da: O-a luzea denean OV hizkuntza askok OV hurrenkera saihesteko joera badute, baina kontrako joera (O-a laburra denean VO hizkuntzek VO hurrenkera saihestea, alegia) ez bada inoiz gertatzen, zergatik dago OV hizkuntzarik? Bestela esan, zergatik ez dira OV hizkuntza guztiak VO bihurtzen (edo zergatik ez dira horrelakoak izaten hasieratik), era horretan OV hurrenkerak dakartzan prozesamendu arazoak ekidinez, eta perpaus guztiak –O-aren luzera gorabehera, eta egitura topikalizatu edo markatuak albo batera utzita– VO hurrenkera eroso-gora egokituz? Interesgarria da Donegan & Stampe-k (2004: 25) galdera honi proposatzen dioten erantzuna: “The answer must be that falling rhythm itself has intrinsic value [Gogora bedi ikertzaileen tipologia holistikoa eritmo trokaikoa OV hurrenkerari eta haren ezaugarriei lotuta dagoela]. It has been noted that child speech shows a “trochaic bias” [...]. This bias is clearly a reflection of the fact that the division of real time into beats and measures is universally front-prominent: temporal compensation and phonetic processes operate within groupings of strong-weak, never weak-strong. [...] Only words and phrases spoken in a falling rhythm fit neatly into these universal divisions of time”.

Hau zuzena izatera, joera erritmikoa eta prozedura kognitiboen arteko lehia izango genuke OV / VO hurrenkeren arteko tirabiraren eragile nagusia, munduko hizkuntzen artean zein OV ~ VO aldakortasuna duten hizkuntzen barnean (euskara kasu).

- I. cerren aendaco da ceruco erreñua (Kap., *Dotr.*)
- I'. cerren aec yçango dira lurreen iabaac (Kap., *Dotr.*)
- I''. çerren eurac consoladuac içango dira (Kap., *Dotr.*)

Mitxelenak (1981b/1988: 673) jarritako adibidean ondo asko ikusten da mintzagaia eta galdegaiaren jokoak Etxepareren hizkeran jada indarrean dagoela: *lehenago* → mintzagaia, *hi* → galdegaia¹⁰. Bertsua dakusagu Tartasen (14d) adibidean (*Guré bicia*, *guré dembora oro* → mintzagaia, *hirur gauçac* → galdegaia), Voltaire-renean (*Hitzaç eta lomaç* → mintzagaia, *aissiaç* → galdegaia), Lazarragarenean (*mediçinea* → mintzagaia, *çu* → galdegaia), eta Kapanagaren (14I, I', I'') adibideetan, denak andana berean. (14I, I')-n ez bezala, (14I'')-n izenordaina mintzagaia da, eta oraingoan GG-a *consoladuac* da. Bi autoreok –eta (14)-eko besteek– XVIII. mendeko gramatikari preskribatzaileek baino askoz lehenago idatzi zuten, eta haien lanetan mintzagaia eta galdegaiaren jokoak dagoeneko ezagutzen dira, eta sarri erabili.

Baina, kasu honetan ere, hau ez da printzipio irmo bat, eta haren betetzea / ez-betetzea parametroa baldintzatzen duten faktoreak ez dira batere errazak ez definitzen ez sailkatzen, eta haien ikerketan pragmatika eta gramatika gurutzatzen dira. Ikus ditzagun (15a, b, c):

- (15) a. Nork ekarri du hori?
- b. Hori, aitak ekarri du
- c. Hori ekarri du aitak

[Osa Unamuno (1990: 105), Altube (1929: 14)-tik hartua]

Arau altubetarrek esaten digute (15a)-ri erantzuteko modurik dotoreena (15b) dela, erantzun batean erantzun-sintagma izango baita GG-a, eta aditzaren aurreko kokagunean agertu beharko du. Baina Osa Unamunok (1990: 105) markatu legez euskaldun hiztun garbi askok ere ontzat joko lukete (15c), edo are beraiek (15b) baino gehiago erabili, eta hori erdarakerian erori gabe. Hala ere, kasu honetan –(15b)-n bezalaxe– *aitak* horrek azentu intentsiboaren goragunea eskatzen du.

Izan ere, askotan aditzaren esaldiaren fokua justu ondorengo kokagunean ageri da, eta normalean esaldi amaieran. Aita Villasantek dagoeneko markatu zuen hau. Hona hemen adibide batzuk:

- (16) a. Erran nahi dut gauza bat (Ax. 240)
- b. Kofesatzen dira maiz (Ax. 346)
- c. Kostatzen da ikaragarri
- d. Elurraren kolorea da zuria

10. Gogora bedi hurrengo bertsoa: *Oray aldiz içaneniz / orotaco lehen*a, non *aldiz* horrek agerian uzten duen aurrekoa mintzagaia edo topikoa dela.

[Villasante (1980: 255-260; (16c, d)-ri dagokienez, “se oyen frases como” diosku]

- e. baceaquiát nor aicen: hi aiz laincoaren saindua (Leiz., *Luk IV*, 34)
- f. Guré Arima da gaztelu eta laureguy eder bat (Tartas, *OHB*, 65)
- g. Hitçaq dire emeaq eta obraq harraq (Voltaire, [187])
- h. Mandamentuac dira amar (Kapanaga, *Doctr. Crist.*)
- i. Ondo xauna, nic eguingo dot alan (Mikoleta, *Elkarr.* 235)
- j. Non eguin sidi? Au ta sillac etorsan Salamancaric (Mikoleta, *Elkarr.* 141)

[Nik gehituak]

Ortiz de Urbinak (2002: 513), hala ere, uste du fokalizazio prozesu hau ez dela aditzaren ondoren gauzatzen, esaldi amaieran baizik:

- (17) a. Jonek irakurri du periodikoa ETXEAN
- b. ?? Jonek irakurri du ETXEAN periodikoa

[Ortiz de Urbina (2002: 513)]

(17a) fokalizazio zuzena da, (17b) ordea nahiko bitxia. Ortiz de Urbinaren arabera, aditzaren ondorengo kokagunea bainoago, garrantzitsuena elementu fokalizatua intonazio-etenaren ondoren izatea da.

Behin-behinik, beraz, esan dezakegu: a) aditzaren aurreko kokagunekoa ez dela fokalizazio prozedura bakarra, euskaraz; baina b) datuak aski kaotikoak izan arren, GG-a markatzeko euskaraz ez duela edozein gauzak balio. Fokua ezin ager daiteke, esaterako, aditzaren aurreko kokagunetik ezkerrera, (18a, b, c, d)-n ikus daitekeen bezala:

- (18) a. Galarzak partidua erraz irabazi du
- b. ?? Galarzak erraz partidua irabazi du
- c. Oso jende gutxi ikasi du hori
- d. ** Oso jende gutxi hori ikasi du

[Ortiz de Urbina (2002: 518-519), Etxepare (2002)-tik hartua]

Esaldiotan beste gauza bat ere nabari da. Hitz batzuk berez semantika predikatiboa dute, eta horixe bera da *erraz* eta *gutxi* hitzekin gertatzen dena, hurrenez hurren izenondo eta kuantifikatzaile predikatiboak. Esaldi batean agertuz gero, normalean informazio berria ekarriko dute, haiek izango dira GG-ak, eta horren ondorioz GG-ko kokagunean –dela aditzaren aurre justuan, dela aditzaren ondoren– agertu beharko dute. Jakina, (18b)-n, *erraz*-en ondoren koma bat kokatzen

badugu, horrela *erraz* topiko edo mintzagai bihurtuz, esaldia erabat zuzena litzateke, baina interpretazioa bestelakoa litzateke, alegia, Galarzak erraz gauza asko egiten dituen arren, oraingoan erraz egin duena partidua irabaztea dela. Eta honelako zerbait ez da maiz agertzen diskurtsoan.

Laburbiltzeko, eta bide batez formalismo bat finkatzeko aldera, esan dezakegu elementu baten galdegaitasuna edo garrantzi predikatiboa markatzeko, testu zaharrenetatik GG-V joera izan arren, V-GG# (# = esaldi amaiera) ere posible dela (edo Ortiz de Urbinaren arabera V(X)-GG#). Ez, ordea, **GG-X-V.

2.4. SOV eta GG-V hurrenkerak, zein neurritan topiko?

Azken urteotan, Hídalgo (1995 eta hurrengoak) kolokan jarri ditu euskararen hitz hurrenkeraren azalpen tradizionalak. Labur esan, Hídalgo dioena da bi printzipio tradizionalak (SOV hurrenkera oinarrizkoa eta GG-V galdegaitasuna markatzeko) XVIII.-XX. mende bitarteko euskararen teorialarien joera antierderisten artifizioa dela. Teorialarion lan preskriptibatzailea Kardaberazekin hasi zen, eta Altube eta Azkuerekin burutu. Hídalgoen ustez, haien aurreko literaturan, zein XX. mendean bertan herriaren ahozko jardunean, SVO da hurrenkera hobetsia. Eta hau analisi estatistikoaren bidez argudiatzen du.

Hídalgoen lanak oparo deskribatzen du euskal gramatikagintza, bai eta ederki frogatu ere haren barnean SOV hitz hurrenkera hobetsi eta sustatu dela (ik. 1996, 2004). Bestetik, sortu duen polemikak badu aurrekaririk alemanean (ik. Nübling 2006: 98), non konponbide bat alemaneko hitz hurrenkera 'Mischtyp' batean sartzea izan den, hots OV zein VO ezaugarriak batzen dituen hizkuntza motatzat hartzea. Hala ere, euskarak baditu ezaugarri estruktural franko SOV-tzat hartzeko, haren ezaugarri tipologikoak askoz lotuago baitaude SOV hurrenkerari SVO hurrenkerari baino. Hasteko, euskara hizkuntza ergatiboa da, izen nahiz aditz morfologian, eta SVO hizkuntza ergatiboak arras bitxiak dira. Bigarrenik, euskara historikoa atzizkitzailea da eta ez ditu aurrizkiak batera gustuko. Hau ere lotuago dago SOV hizkuntzei. Hirugarrenik, euskara historikoa NPosp eta GN dugu (*mahai gainean, etxeko teilatua*). Ezaugarriok ez dira bateraezinak SVO hurrenkerarekin, baina NPosp / GN parametroak dituztenen artean SOV hizkuntza gehiago daude. Azkenik, bada euskarak duen ezaugarri estruktural bat hizkuntzaren behintzat menpeko perpausak OV izatera derrigortzen dituenak: *-n* eta *-la* menderagailuak aditzari atxikitzen zaizkio. Menderagailuok halabeharrez menpeko perpausaren muturrean daudenez, aditzari atzizkiturik, menpeko perpaus horren egitura natural eta prototipikoan aditza amaieran izango da (ik. 3.3.3.).

3.3.3. azpiatalean saiatuko naiz erakusten ezaugarri hauek, NPosp eta GN parametroek gorabehera batzuk dituzketen arren, oro har euskara komunean bazeudela indarrean. Argudioak ez errepikatzeko, azpiatal horretan azalduko ditut xehekiago ezaugarrien nondik norako tipologikoak.

Analisi enpirikoak ere bat dator euskara historikoa, eta ziur aski aurrehistorikoa eta komuna, SOV delako hipotesiarekin, XVI. eta XVII. mendeetako testuekin

hasita (ik. Eranskina). Testu zaharrak aipatzen ditut, batetik hau lan diakronikoa izaki interes handieneko aztergaia direlako, eta bestetik Hidalgoren tesiaren araberako gramatikagintza tradizioa baino askoz lehenagoko testu horietan SVO-rako joera nabarmenagoa erakustea espero genezakeelako.

Analisi kuantifikatzaileetan sartu aurretik, oharpen orokor bat egin nahi nuke. Azterbide kuantifikatzailea –beheraxeago azalduko ditudan arrazoiengatik– sarri subjektiboa denez, bereziki esanguratsuak dirateke alboan erromantzezko itzulpen/testu bat daukaten testuak, eta hauetan, bi testuek OsV / VOs parametroaren balore ezberdinak agertzen dituzten kasuetan, ia beti dugu: OsV euskarazkoan, VOs erromantzezkoan, ia inoiz ez alderantziz. Hona hemen adibide batzuk:

- | | | | | |
|------|----|-------|---|-----------------------------------|
| (19) | a. | eusk. | Seuc seure prouechua vstiosu | (Mikoleta, <i>Elkarr.</i> , 31 l) |
| | | gazt. | Tu adiuinas tu prouecho | |
| | b. | eusk. | Eguia da, beauric dagozanac | (Mikoleta, <i>Elkarr.</i> , 158) |
| | | gazt. | Es verdad, las que estan enterradas | |
| | c. | eusk. | Ceruetan çagoçana | (Betolatza, <i>Dotrina</i>) |
| | | gazt. | que estàs en los Cielos | |
| | d. | eusk. | bere egunac erdizcatceintuzte | (Axular, <i>Gero</i> , 111) |
| | | lat. | dimidiant dies suos | |
| | e. | eusk. | Ceren orduan beccatuaren egoitçan, estatuan eta toquian baitago | (Axular, <i>Gero</i> , 178) |
| | | lat. | Quia tunc est in statu peccati | |
| | f. | eusk. | Guero comparationebat-ere erran ciéçen | (Leiz., <i>Luk. V</i> , 36) |
| | | lat. | dicebat autem et similitudinem ad illos | |
| | | gr. | élegen dè kai parabolèn pròs autoùs | |

Askoz adibide gehiago jartzea denbora kontua litzateke. Alderantzizko egokitzapena, VOs euskaraz, OsV erromantzezkoan, ez da erraza kausitzen. Adibideok aditzera ematen dute, dirudienez, euskarak baduela erromantzeak ez duen zerbait –hori zein-nahi ere den–, zenbait kasutan OsV hurrenkerara bultzatzen duena.

Hel diezaiozun orain analisi kuantifikatzaileari berari. Esan behar da hizkuntza konkretuetako hitz hurrenkeraren inguruko ikerketetan zenbaketa ezberdinak erabili izan direla, eta ez dagoela zenbaketa egiteko unibertsaliki onartutako metodologiarik. Adibidez, OV / VO parametroan aztertzerakoan, zer da O? ‘Direct object’ (*etxea erosi dut*) ala edozein ‘complement’ (*etxetik etorri naiz*)? Euskararen kasuan, hau korapilatzen da usu hitz hurrenkera pragmatikoki baldintzatuta dagoelako. Hala nola, *Noiz bidali zenion gutuna?* – *Atzo bidali nion gutuna* esaldian (erantzunean), VO hurrenkera dugu, baina *gutuna* osagaia erabat bigarrenkaria da esaldiaren testuinguruan. Testuingurua ikusita, mintzagai gibeleratua

baino ez da. Ez da, berez, VO arrunta, edo ez behintzat testuinguru neutro batean ahoskatutako *Gutuna bidali nion* esaldi baten OV (edo *Bidali nion gutuna* esaldi baten VO) hurrenkerarekin maila berean kokatu daitekeen VO bat.

Subjektibotasun hau gogoan, nik markatu nahi dut, ez Hidalgoren (1999) metodologia ez denik zuzena, baina bai ez diela nik euskararen hitz hurrenkeraren inguruan neure buruari egiten dizkiotan galdera guztiei erantzunik ematen¹¹. Haren analisisan, sailkapenaren eginkizuna V-ak osagaien segidan zein kokagune okupatzen duen zehaztea da, osagai horien izaera bereiztu, taxonomizatu gabe¹². Berdin da osagai horietariko bakoitza osagarria edo adjuntua izatea. Agerian geratzen da, behin eta berriz, menpeko perpaus jakin batzuk izan ezik euskarazko V-a oso gutxitan dagoela esaldi amaieran, eta are gutxiago esaldia luzea baldin bada.

Baina hau ez da euskara funtsean SOV delako tesiarekin bateraezina, euskara, japoniera bezalaxe, 'V-a amaieran' motako hizkuntza zurrunda dela proposatzen ez dugun bitartean, behintzat. Ene iritziz, hitz hurrenkeraren parametro garrantzitsuena ez da hori, osagarriaren (hots, aditzaren menpeen dagoen elementuaren) eta aditzaren arteko hurrenkera erlatiboa baizik: OsV ala VO. Adjuntua, eta are gehiago post-pentsamenduak, esaldi egituraren oinarriko hurrenkeraren ikuspegitik zokoragarriak dira.

Idea honekin egin ditut Eranskineko zenbaketak, eta ondorio nagusia XVI-XVII. mendeetako hitz hurrenkera egungoaren antzekoa dela da. Egun bezala, OsV eta VO hurrenkeren arteko tirabira nabari da, tirabira hori oinarriko intuizioa –ene iritziz, OsV-ren aldekoa– eta VO hurrenkeraren abentaila kognitiboen (ik. 2.2.) arteko joko bat delarik. Latinean eta alemanean bezalaxe, OsV / VO ratioa altuagoa da erregistro landuetan hizkera arruntean baino¹³, eta orobat altuagoa menpeko perpausetan, baina askoz baxuagoa Os-a luzea denean.

Faktore hauek guztiok –zein sor ditzaketen dikotomiak eta dikotomien arteko nahasmenak– ikusita, gauza batean bat nator Hidalgorekin: VO-rako joera erda-eren eraginari –behintzat bakarrik– egozte sinplifikazio nabarmena da. Hala ere, nik ez dut uste garai hartako –zein egungo– euskaldunen oinarriko intuizioak VO hobesten duenik. Esanguratsuak deritzet, zentzu horretan, Zumarraga eta

11. Baina ulertuko nuke nik lanean zehar zein Eranskinean planteatzen dudan metodologiak berak edo bestek euren buruari planteatzen dizkioten galderei ere erantzuten ez diela osteratuko balidate. Hitz hurrenkerari ikuspegi aniztetatik begira dakiok, eta nire lan honetan markatutakoak besteen osagarri gisa baino ez ditut planteatzen.

12. Hona hemen haren azterbidearen oinarriak (1999: 406): "Aztertu esaldi nagusien kopurutik (4.681), osagai kopuruaren arabera aztertu ditugu, soilik: aditzaz hasten zirenak (640); aditzaz amaituak (1.262); eta aditza tartean izaki, galdegaia aditzaren ondoretik erakusten zutenak (2.044), edo aditz aurre justuan (279). Denera 4.225 esaldi. Ez ditugu osagaika aztertu: aditza tartean izanik, galdegai gunearen arabera sailkatu ezin izan ditugun bestelako 263 esaldiak; eta ezta ere, *ba-* aurrizki bidez osatutako aditz trinko bidezkoak (193 esaldi)".

13. OsV / VO parametro orokorrean, ratio baxuena erakusten duten lauren artean, bi elkarriketa testuak ditugu (Mikoleta eta Voltaire), eta OV / VO parametroan, ratio baxuena erakusten duten hiruren artean ere berdin.

Etxauz-en gutunei. Hauek testu laburrak eta aski naturalak ditugu, prosazkoak – neurkerak eta errimak ez baldintzatuak –, gutunak izanagatik estilo ez bereziki ponposokoak, erromantzezko testu baten menpe ez daudenak eta gramatikarien lan preskribatzaileak baino askoz lehenago idatziak izan zirenak. Bada, haietan hitz hurrenkera OsV argia da.

Testuek emandako datu hauek landa, ezin ahantz ditzakegu toponimiak emandako informazioa eta Erdi Aroko gramatikadun datu apurrak. Hala nola, gogora datozkit Contrastako toponimo ezagunak zein Nafarroako Foru Orokorreko esapide ospetsua:

- (20) a. *Euridacar* (1540), *Euridacargaina* (1540), *Aizluceadana* (1787), etab.
[Mitxelena (1985/1988)]
- b. *On bazendu avaria* (1237)
[Mitxelena (1964/1990: 52)]

Nekez esan daiteke, beraz, OsV hurrenkera Kardaberazek, Altubek eta Azkuek asmatu-rikko artifizioa denik.

3. EUSKARA ZAHARRARI BEGIRA

3.1. Hitz hurrenkera zaharren inguruko hipotesiak

Historia lekukotuaren aurreko hitz-hurrenkerari dagokionez, aditu gehienak bat datoz noizpait euskara VO hizkuntza izan dela. Hona hemen azken hamarkadotan eztabaidaratu diren hiru ikuspegi:

- 1) Trask-en arabera (1977, 1997), hurrenkera historikoaren aurreko hurrenkera, noizpait, SVO izan da. Argudio nagusiak honakoak izan dira: a) fase- ren batean hizkuntzak aurrizkiak izan ditu (*e-karr-i*, adib.), eta hauek askoz lotuago daude VO hizkuntzei; b) aditz morfologian SV- hurrenkera fosildu- rik dagoela ematen du (adib., *na-tor*, datorrela hau < **na-da-tor-etik*, **ni-da-tor-etik*, edo antzeko zerbaitetik), eta gaurko morfologia atzoko sin- taxia delako printzipioari jarraiki, hau hurrenkera zaharra bide da; eta c) tipologikoki, ezezko perpausak ezaugarri arkaikoak mantentzeko joera agertzen dute, eta euskararen ezezko perpausetan VO hurrenkera kausi- zen dugu.
- 2) Gómez-en (1994) arabera, euskara VSO izan da, edo hobeki esan, XV(S)O, baina edozein kasutan VO. Kasu honetan ere, gaurko morfologia atzoko sintaxia delako printzipioa baliatzen da, baina beste argudiaketa batekin. Aditza bigarren kokalekuan legoke, eta hasierako hutsunea beste elementu batek bete behar luke, dela hau S (*na-tor*), O (*na-kar*), Adj. (*da- kar*), perpaus juntagailu bat (*ze-karr-e-n*), edo beste zerbait (*le-kar-ke*), irlandera zaharrean gertatzen den bezalatsu.

- 3) Lakarrak (2005) batez ere VO > OV aldaketan fokalizatzen du bere interesa, eta hau beste parametro batzuekin batera lerrotzen du, dezente orokortuz honako garapena proposatuz:

Aitzineuskara ~ Euskara zaharra	Euskara historikoa
VO (<i>dakar euri</i>)	OV (<i>euri dakar</i>)
NG (<i>gizon etxekoa</i>)	GN (<i>etxeko gizona</i>)
NRel (<i>gizon etorri dena</i>)	ReIN (<i>etorri den gizona</i>)

Horrela, Lakarrak 'aldaketa holistiko' bat proposatzen du, Donegan & Stamp-ek (1983) mon-khmer familiatik munda familiarako igarotzea azaltzeko proposaturikoren ildotik.

3.2. Baina OV, noiztik?

Aurreko hiru autoreek VO > OV garapen bat defenditzen dute irizpide estrukturetan oinarrituz. Baina aldaketa hau nola gertatu datekeen eztabaidatu aurretik, eztabaida horren esparru kronologikoa ezartzea komeni da. OV hurrenkera historikoa beste VO batetik eratortzeko aipaturiko argudio guztiak barnekoak dira, barne-berreraiketaren bidez ondorioztatuak. Metodo konparatzaile hutsak euskalki guztiak funtsean SOV direlako oharpena garamatza, eta hortik hizkuntza komunerako SOV hurrenkera ez-markatua postulatzera. Beraz, SOV < SVO (edo VSO) eratortzeko edozein saio –eta neronek ere bat egingo dut beherago– fase aurrekomun batean kokatu beharko da¹⁴.

OV ~ VO parametroaren (euskalkien arteko) konparazioaz landa, euskalki guztietan ageri diren beste ezaugarri batzuk ere bat datoz OV-ri lotutako tipologiarekin, eta hizkuntza komuna jadanik SOV zelako onarpena azkartzen dute. 2.4.-n markatu legez, euskara hizkuntza ergatiboa da, izen (*Patxi-Ø etorri da / Patxi-Ø ikusi dut / Patxi-k ikusi nau*) zein aditz morfologian (*etxetik na-tor / Patxik etxetik na-kar / Patxi etxetik dakar-t*). Azpimarragarria da izen morfologiaren ergatibitatea salbuespenik gabea dela euskalki orotan, inongo split-ik gabea¹⁵. Aditz morfologian, Orainaldiko sistema ere zeharo ergatiboa da. Iraganaldi-irrealiseko sistemak, ordea, split bat agertzen du (*nen-torr(-e-n) / nen-karr(-e-n) / ne-karr(-e-n)*, baina ~ *zintu-da-n*), baina, hau guztia komuna izaki, hizkuntza komuneko aditz morfologia funtsean ergatiboa zen.

14. Mitxelenaren (1981a/1987) ikusmoldeaz ari naiz hemen, zatiketa dialektalaren aurreko euskara komun hori V-VI. mende inguruan kokatu zuelarik (ik. oraintsuko Zuazo 2010: 139-164). Ziur aski ez ziren euskalki guztiak enbor komunetik aldi berean bereizi, baina (hemen ezin eztabaida ditzakegun) honen inguruko xehetasunek ez diote erasaten esandakoari (hizkuntza komuna SOV zelako onarpenari, alegia).

15. Hau tipologikoki ezohikoa da, zeren hizkuntza ergatibo gehienetan nolabaiteko *split ergativity* bat topatzen dugu, punturen batean. Hala esaterako, izen bizigabeek marka ergatiboa izateko aukera gehiago dituzte bizidunek baino, izenek orokorrean aukera gehiago izenordainek baino, etab. (ik. Dixon 1994: 70-110).

Bada, euskara komuna ergatiboa bazen, logika tipologikoak diosku ziur asko ez zela SVO hizkuntza. Dixon-en (1994: 50) esanetan: “In fact, languages with intra-clausal ergativity seem seldom to have a preferred verb-medial constituent order”. Jarraian Dixon-ek adibide bakan batzuk aurkezten ditu, arras exotikoak. Bakantasan honen arrazoia da SV hizkuntzetan V-a erdian agertzeak berak desanbiguatzen dituela S-a eta O-aren rol sintaktikoak, horrela ergatiboa erredundantea delarik.

Euskalki guztietan aurkitzen ditugun beste ezaugarri batzuk ere bat datoz OV tipologiarekin. Hala nola, euskara historikoa atzizkitzailea da eta ez ditu aurrizkiak batere gustuko. Aurrizkiekiko higuin hori bereziki nabarmena omen zen euskara zaharrean eta ziurrenik komunean, hizki mailegatu zaharren artean ez baitago aurrizkirik. Bertako lexikoan ere ez dago hizkuntza komunerako berreraiki daitekeen aurrizkirik¹⁶.

Azkenik, euskara historikoa NPosp eta GN dugu (*mahai gainean, etxeko teilatua*). Ezaugarri izaera komuna 3.3.1.-en eztabaidatuko dut. Euskara komunean baleude ere, NPosp eta GN ez dira bateraezinak SVO hurrenkerarekin, baina NPosp / GN parametroak dituztenen artean SOV hizkuntza gehiago daude. Adibidez, Hawkins-en (1979) 142 hizkuntzako lagin ezagunean, SVO / NPosp / GN / NA mota 9 hizkuntzatan ageri zaigu, SOV / NPosp / GN / NA mota, ordea, 24 hizkuntzatan.

Ikuspegi honen arabera, beraz, euskara komuna SOV zen. Baina honek ez du esan nahi euskara hizkuntza estatikoa izan denik, edo haren hitz hurrenkera ez denik aldatu tradizioaren aurreko mendeetan. SOV hizkuntzen artean aniztasun handia dago. Batetik, hurrenkera hori zurrunago edo malguagoa dateke, eta bestetik gainontzeko parametroetan (AN / NA, GN / NG, ReIN / NRel) balore ezberdinak ager ditzake. Ikus ditzagun parametro horien gorabehera batzuk, euskara komunetik tradizioaren hasierara bitartean nola aldatu datekeen ikertze aldera jorratu beharrekoak.

3.3. Euskara komunetik jasotako SOV esparrutik irteteke ikertu beharreko parametroak

3.3.1. NG / GN eta NRel / ReIN parametroak

Euskararen –hots, euskalkien– kasuan zenbait parametro daude, XVI.-XXI. mende bitartean balore edo gorabehera ezinberdinak agertzen dituztenak. Adibidez, Lakarrak (2005: 421-422) markatzen du testu zaharretan, edo bestelako lekukotasun zaharkitzaileetan, NG eta NRel agerpenak askoz ugariagoak direla. (21) NG hurrenkerako agerpenak dira, (22) NRel-ekoak:

16. Hawkins & Gilligan-ek (1988: 220) markatzen dute Greenberg-en 30 hizkuntzako laginean, 12 hizkuntza direla soilik atzizkitzaileak (atzizkiak dituzte baina aurrizkirik ez); bada, 12 hauetarik, 2 VO dira –VSO edo SVO–, eta 10 SOV. Aurrerago lanean (ik. Hawkins & Gilligan 1988: 228), beste hiru laginetako indizeak aipatzen dira eta ‘atzizkitze soila → OV’ lotura ez da Greenberg-enean bezain estua. Hala ere, lau laginen batez bestekoa eginda, OV hizkuntzen %62k atzizkitze soila dute. Aitzitik, VO hizkuntzetarik, %11k soilik dute atzizkitze soila.

- (21) a. Milia Lasturko (XVI. mendeko eresia)
[Lakarra (2005: 421-422)]
- b. gende vicitze gaichtotacoac recebitzen ditu (Leiz., *Luk.* XV, 2)
- c. Etche orationetacoa (Leiz. *Mark* XI, izenb.)
- d. Oracione igandeco (Etx., I, 57-58)
- e. Prepavs molçaquo (Voltaire, [172])
- f. gaztelu Gebaracoan (Lazarraga, <1159r>)
- g. jaun çerucoac (Lazarraga, <1146r>)
- h. Acto Fedecoa (Viva Jesús)
- i. Bost ama Elexa Santacoac (Viva Jesús)
- j. frac terciopelo acuchilladuscoac (Mikoleta, *Elkarr.* 52)
[Nik gehituak]
- (22) a. Moment *ageri eztiradenak* bezala zarete (Leiz., 1571)
- b. Agin *min emoiten dayana* arranka zak (erronk., ~ 1900)
- c. Urdirakiena (Ameskoako toponimoa)
- d. Gordin, urdin, berdin, bizardun (euskal lexiko historikoan)
- [Lakarra (2005: 421-422), (22a, b) De Rijk (1980/1998)-ri, eta (22d) Mitxelena (1970/1987)-ri jarraiki]

Lakarraren –eta erlatibozko esaldiei datzekienez bera baino lehen De Rijk-en (1980/ 1998)– arabera, zenbat eta atzerago goazen testu tradizioan, orduan eta sariago agertzen zaizkigu honelako egiturak, NG zein NRel motakoak.

NG / GN parametroan, (21a-j)-koen antzekoak XVI. mendean ugariagoak izateak Erdi Aroan NG eta GN garai historikoetan baino parekatuago zeudelako zantzuz argia da. Baina hizkuntza komunean jadanik GN sintaxiak ere esparru sendo bat bazuela, ukalezina da datuen argitan. Sartalde aldera begiratzen badugu, *Aurrekoetxea*, *Goikoetxea*, *Goikouria*, *Goikolea*, etab., XVI. mendean lekukotzen dira (ik. Rementeria 2010), eta lursail edo leku zaharragoen irudi onomastikoa bide dira. Era berean, *Gasteasoro*, *Galparsoro*, *Obekuri*, *Otxanduri*, *Galbarruli* bezalako abizen eta/edo toponimo txikiak, non lehen elementua oinarri antroponomikoa den, GN egitura argiak dira, eta ez berantiarak¹⁷. Lekukotasunok mendealderrak dira, baina Mitxelenaren *Apellidos vascos*-en (ik. 1953a/1990) begiratzen badugu argi asko ikus daiteke GN egitura nagusia izan dela edozein eskualdetako abizen eta toponimia txikian, behintzat Erdi Aro Beherean (ik. *egí*, *ola*, etxe eta antzeko sarrerak) eta kontuan hartuz egun postposiziotzat joko geni-

17. Horrez gain, hauek izatera kolonizatzaileko toponimoak izaki, asko –adibidez Araba eta Errioxakoak– Erdi Aroko prozesu migraziozkoetan kokatu behar ditugu. Bereziki adierazgarria da, zentzu honetan, izatera eta kronologia bereko erromantzezkoekiko erkaketa: *Villagonzalo*, *Villarcayo* (< **Villa Arcadio*), *Villazopeque*, *Villacián* (~ *Zeanuri*), *Villarramiel* (~ *Harramelluri*), etab., NG sintaxikoak.

tuzkeen *ondo*, *gibel*, *alde*, *be(he)*, etab. (ik. sarrera hauek) ziur asko GN egituretako sintagma buruak izan direla noizpait.

Erdi Aroan bertan, lekukotasun zuzen apur batzuk ere baditugu. Leku genitiboak NG hurrenkera agertzen du:

- (23) a. *Peidro Soriano* (Iratxe, 1213)
 - b. *Garcia Baçterreco* (Iratxe, 1227)
 - c. *Domicu Guivelecoa* (Iratxe, 1257)
 - d. *Anso Olacarizquetaco* (Iratxe, XIII. mendea)
- [Mitxelena (1969/1987: 126-127)]

Jabego genitiboak, ordea, gehi jabegoa atzizkirik gabe adierazten duen egiturak, GN agertu ohi du:

- (24) a. *Orcire çorita* (Leire, 1110)
[Irigoien (1976/1987: 177)]
 - b. *Lope iaun Ortire semea ...*
'Fi de don Orti' (Iratxe, 1125)
 - c. *in loco qui dicitur Jaun Berasco Ydoy*
'El pantano de don Velasco' (Iratxe, 1228)
 - d. *Garcia Videa*
'El camino de García' (Iratxe, 1246)
 - e. *la vinea de Eçteve ardança*
'La viña de Esteban' (Iratxe, 1261)
- [Mitxelena (1969/1987: 96, 127)]¹⁸
- f. *Bardahuri, Blascuri, Bascuri, Gipuzauri, Hatumanhuri, Harramelluri, Izahuri, Maruri, Mutilluri, Nafarruri, Nunno-falzahuri, Ozturi, Semenohuri, Vermuduhuri, Zufiuri* (Donemiliaga, XI. mendea)
- [Mitxelena (1971/1987: 66-67)]

Leku genitiboak, beraz, NG-rako joera nabarmenagoa erakusten du. Hala ere, genitibo hau Erdi Aroan ageri den kasu gehienak egitura patronimikoak dira, eta ez dakigu kasutan zein neurritan jokatzen duen rol bat erromantzeak, edo egituraren izaera semantikoak berak. Izan ere, egitura patronimikoetan jabego genitiboak ere NG hurrenkera agertzen du: *Guarcea Ansorena*, *Sanso Urraqarena* (Iratxe, XIII. mendea) (ik. Mitxelena, 1969/1987).

18. Beste leku batean Mitxelenak (1976/1985: 381) honakoa diosku: "No se sabe, pues, si un ejemplo aislado como *haur aiták* [...; Leiz., 1571; = *ho pateèr tóu paidiou*] es un descuido por *haurraren aiták*, cosa que cuesta trabajo crear, o representa una supervivencia de un estado de cosas anterior".

Deklinabideko genitiboekin bukatzeko, badirudi tatpurusa deritzen hitz elkar-tuak (*bizkar-hezur* bezalakoak, /osagari + sintagma buru/ egiturakoak, printzipioz GN motako sintaxi batetik gertuagoak) sendo sustraituta daudela euskal lexikoan, asko komunak edo proiektio komunekoak direla, eta hauetariko hainbatek komu-nak diren hitz elkarketako arauak pairatzen dituztela: *artzai(n)* (< *ardi-zai(n)), *artalde* (< *ardi-alde), *artile* (< *arti-ile), *betazal* (< *begi-azal), *betile* (< *begi-ile), etab.

Erlatibozko esaldiei begira, bereizi behar ditugu benetako NRel egiturak, NRel egitura aposiziozkoetatik. Lehenengoetan, sintagma buruak ez du determinatzaile-rik, ez artikulurik, ez bestelakorik. Hau Rel-eko aditzean baino ez da ageri (*gizon-Ø etorri den-a*, *emakume-Ø liburua eman zidaten-ak*), eta erlatibozko per-pausa izena eta determinatzailearen artean txertatzen da. Bizirik dirauten euskal-kietan, egitura hau ez da jada emankorra, eta haren ordez RelN egiturara –batez ere errejistro formaletan– edo NRel egitura aposiziozkora –ahozko jardunean, eta batez ere Rel-a astuna bada– jotzen da. NRel egitura aposiziozkoetan, determi-natzailea sintagma buruan zein Rel-eko aditzean ageri da bikoizturik (*gizon-a*, *etorri den-a*; *emakume-ak*, *liburua eman zidaten-ak*; *atzo topatu nuen gizon-bat*, *esan zidan-a...*). Kasu honetan, Rel-a usu aposizioa da, are post-pentsamendua. Baina ahozko mailan egitura emankor eta sortzaileena denez, maiz hauek erlati-bozko perpausak sortzeko baliabide ohikoak ditugu, baita Rel-aren esanahia bereizgarria (erk. gazt. *el hombre que vino*; Rel-ak beste gizon batzuegandik bereizten du), ez deskribatzailea (erk. gazt. *el hombre, que vino*; hemen Rel-ak gizonari buruzko zerbait kontatzen digu), denean¹⁹.

Esan gabe doa Lakarra eta De Rijk-en NRel-ak lehen motakoak direla. Ikus ditzagun gehixeago²⁰:

- (25) a. (hura dut comparaturen) guïçon çuhur bere
etchea arroca gain batetan edificatu due-
narequin (Leiz., *Mat.* VII, 24)
- b. ceren ezpaitituc sinhetsi ene hitz bere dem-
borán complituren diradenac (Leiz., *Luk.* I, 20)
- c. Galileaco hiri Nazareth deitzen denera (Leiz., *Luk.* I, 26)
- d. Eta haren adisquide oray bordelen denac (Etxepare, XV, 15)
- e. coin baita gauça desiracen dudana (Etxauz-en gutuna,
1584)
- f. Batçueq estuté eta berçé duteneq estute
nahy molçatiq atratu (Voltoire, [229])
- g. penitentzia konfesoreak ibeni degidana (Amilleta, [1])

19. NRel aposiziozkoen emankortasun hori, jakina, testu zaharretan ere ageri da: *oneyc dira egu-nac beardogusanac* (Mik., *Elkarr.* 104), *aditu even os andi bat canputi etorrena* (Laz., <1152v>), [*Atratic Sacerdotea...*] *Iênbicico yzacc erratêdituenac dirade (...)* (Ber., *Trat.* 4. kap.), etab.

20. Markatu behar da, hala ere, Etxauz-en (25e) eta Amilletaren (25g) bikoitzak direla, hurrenez hurreneko sintagma buruak -a-z bukatzen direlarik.

- h. Christo au ba Mesias itxadeten geondena? (Amilleta, [2])
- i. onaco trapu yquileac ecarri ditsanac (Mikoleta, *Elkarr.* 256)
- j. Christiñeu langoicoen gracian dagoçanac (Viva Jesús, [9])
- k. Becatari lancoicoagana biortu ditsanay (Viva Jesús, [9])

Boteprontean balirudike honelako NRel-ak NRel aposiziozkoetatik sortu diratekeela. Azken finean, *gizon-a*, *etorri den-a* → *gizon-Ø etorri den-a* balizko garapenean, sintagma buruko determinatzailearen erorikoa baino ez genuke onartu behar. Hala ere, *gizon etorri den-a* motak berezko sustrai zaharra duela onartze-ko (eta *gizon-a*, *etorri den-a* mota aposiziozkoa bereiz eta ziur aski beranduago sortu dela), kasu honetan argudio diakronikoak ezezik argudio diatopikoak ere baditugu, ekialdeko euskalki penintsularretan *gizon etorri den-a* emankorra baita. Hona hemen zenbait adibide:

- (26) a. etxe iltzen dutenetan
- b. bide oiozkira daen gori
- c. toki ur denean
- [Aezkoakoak; ik. Camino (2004: 81)]
- d. Azken itz añaditzen den karek, zer nai du erran?
- e. Itz guzi Jangoikoaren agotik elkitzen dena
- f. Lagun etsean lo egiten daukaguna
- [Zaraitzukoak; ik. Arana (2006: 147-148)]
- g. adin damadanareki (Mendigatxaren gutuna Azkueri, 1903/03/15)
- h. oren igarten drenak (Mendigatxaren gutuna Azkueri, 1905/09/11)
- i. aur iltzen drenak (Bidankozeko Doktrina)
- [Erronkarikoak; ik. Irigoien (1957: 121) eta Angos Peña (2005: 100)]

Guztiarekin ere, NRel egitura zaharkitzailea bada ere, Rel-aren barneko hurrenkera OV izango da beti, menderagailua atzizki bat den bitartean. Bestela esan, *gizon liburu bat hartu duen-a* bezalako egituretan Rel-aren barneko per-pausaren hurrenkera OV izango da halabeharrez. Beraz, (25) eta (26)-n ikusita-ko egiturak ziur aski zaharrak direnez, badirudi parametro honetan, garai aurrehistoriko eta historikoetan zehar, NRel → RelN izan dela aldaketaren nora-bidea, baina OV hizkuntza baten esparruan.

3.3.2. Aditz esparruaren zabaltzea

Tradizioaren aurreko mendeetan OsV/VOs parametroa nola azaleratzen den ikertzerakoan kontuan hartu beharreko beste elementu bat aditz esparruaren zabaltzea da. Batetik, aditz perifrastikoaren sorrera dugu (ik. Mounole, 2007). Hau garrantzitsua da, zeren analisi tradizionalaren arabera adib. *etorri naiz etxetik* VOs esaldia bada, hots *etorri*_{V,JG} *naiz*_{V,J} *etxetik*_{Os}, baina perifrasi batetik badator, non *etorri* predikatua den (< 'soy venido'), orduan hurrenkera OsV izango baita, hots *etorri*_{Os.Pred} *naiz*_V *etxetik etorri*-ren menpeko elementu bat izango delarik. Eta berdintsu perifrasi zaharragoekin: *etor zedin, ekar zezan, etab.*

Bestetik, egitura modalak eta antzeko egiturak hainbeste korapilatu dira, ezen aditz-esparru batek lau pieza dituzkeen, adib. (*autoa*) *hartu behar izan dut*. Aditz esparrua pieza bakarrekoa bada, OsV / VOs parametroaren konbinazio posibleak bi dira, baina lau piezakoa bada Os-a bost kokagunetan ager daiteke. Beste aditz batek menperatutako aditzeko egiturak sartuz gero (adib. *pentsatzen hasi naiz*), posibilitateak areagotzen dira. Zein den, aditz-esparru batean dituzkegun piezetarik, Os-arekiko hurrenkera erlatiboa markatzen duena, sarri aztertzailearen araberrako kontua izango da. Ikus bitez honako esaldiok:

- (27) a. Saluatu nahi denac behar du onsa hil (Tartas, *OHB*, 13)
b. asi çan berbaoc esaten (Lazarraga, <1151v>)

Esaldi hauek, OsV ala VOs al dira? Sintaktikoki VOs, aditz jokatua Os-aren aurretik ageri delarik, baina zama semantikoa dakarren aditz jokatugabea Os-aren ondoren ageri da.

Aditz esparruaren zabaltze hau ziur aski euskara komunetik XVI. mendera bitartean sortu, edo behintzat garatu zen, horrenbestez OsV / VOs parametroa korapilatuz, eta hizkuntzaren *scrambling* izaera indartuz. Baliteke, bestalde, hizkuntza erromantzeen eraginak zerikusirik izatea prozesu honetan, baina erromantzeetako hitz hurrenkera lineala dugu, beti $V_J(-V_{JG}...)$ -Os egiturakoa (adib. *debería haber decidido comprar aquella casa*). OsV / VOs parametroaren *scrambling* izaera, beraz, euskararen bereizgarria omen da.

Etorkizunari begira, jorra liteke nola azaltzen diren parametro hauek testu zaharretan, baina horretarako metodologia ahalik eta gehien findu beharko genuke, aditzeko pieza guztiak kontuan hartuz. Esan bezala, inguruko erromantzeetako aditz perifrastikoaren azterketa diakronikoak ere lagun lezake.

3.3.3. OsV / VOs parametroa perpaus nagusi eta menpekoetan

Ikertu beharreko beste elementu bat, euskara komunetik tradizioaren hasierarako garapena arakatzerakoan, izan liteke zein neurritan erasan dion menpeko perpausetako hurrenkera naturalak perpaus nagusietako hurrenkera-ri. Menderagailu emankorrenen artean *-n* eta *-la* (zein honetatik eratorriak: *-lako*, *-larik*, *etab.*) ditugu. Hauek pan-dialektalak dira, eta arrazoi sintaktiko

zein pragmatikoengatik menpeko perpausaren eskuineko muturrean izan behar dute, edo izateko joera agertzen dute. NP batek eraendutako erlatibozko perpausetan, adibidez, menpeko perpausa eraentzen duen izena *-n* menderagailuaren justu ondoren agertzen da, eta honen ondoren menpeko perpausako elementuren bat gehitzera, menpekoea bitan 'hautsia' azalduko zaigu. Hori dela eta, esaldia guztiz ulergarria izango bada, hobe izango dugu menpeko perpausako osagai guztiak aditz jokatuaren ezkerrean ezartzea, direla osagarriak (ik. (28a, b)), direla adjuntuak (ik. (28c, d)), horrela *-n* elementu sintaktikoki demarkatzaile bihurtuz:

- (28) a. [Etxetik etorri de-n] gizona.
b. ?? [Etorri de-n] gizona [etxetik].
c. [Lehen etorri de-n] gizona.
d. ?? [Etorri de-n] gizona [lehen].

(28b, d) ez dira erabat onargarriak, ez baditugu *etxetik* eta *lehen* pentsamendu-hondar moduan interpretatzen, behinik behin (ik. alemanerako (10a, b, c)).

Beste egitura batzuetan, *-nean*-ez egindako denborazkoetan, *-la*-z egindako konpletibozkoetan edo mugatzaile soilak eraendutako erlatibozkoetan esaterako, menderagailuaren izaera demarkatzailea ez da hain zurruna, eta perpaus hautsiak ez dira batere bitxiak:

- (29) a. nic erranen dut guiçona dela arsto bat (Tartas, *OHB*, 105)
b. eguin ducunian niguar çurè bekhatiez (Tartas, *OHB*, 111)
c. eta desplegatu çuenean liburua (Leiz., *Luk.* IV, 17)
d. Irabaci çutenean Lacedemoniacoec bere fronteraco hiri etsai bat (Ax. 17)
e. byhur nadyr artean ehun escutouena çurè merçeriatîç (Volt., [248])
f. Iraquaçy estouena[q] mundoua mynçatçera (Volt., [271])
g. baçoaç munduen cabura bere (Laz., <1151>)
h. eguion erregutu leguiola conpania (Laz., <1142v>)
i. Seigarrena sinistu dala saluadorea (Kap., 10. orr.)
j. Daguianac aguindua (RS, 95)

Hala ere, estatistikoki OsV / VOs ratioa beti izango da handiagoa menpeko perpausetan nagusietan baino, eta kasuren batean hori pasarte berean azalera-tzen zaigu, honakoan bezalaxe:

- (30) a. Leelengo çazpirac perteneçietan iacaz launnaren diuinidadeari (Kap., 9. orr.)
b. beste çazpirac perteneçietan iacaz Christoen humanidade santeari (Kap., 9. orr.)

- c. Diuinidadeari perteneçietan iacazanac dira
oneec (Kap., 10 orr.)

Ikus ditzagun datu konkretu batzuk. Hídalgoen (1999: 415, 423) corpus osoaren %94,2a biltzen duten 4.410 esaldiren analisi batean, 4.410 esaldi hauen %35,4ko kasuetan V-a esaldi amaieran, tartean baina GG-aren ostean (GG-V), edo amaieran *ba-* atzizki bidezko esaldietan, agertzen da. Hau da, V-a esaldi amaieran %35,4 baino kasu gutxiagotan (ez zaigu esaten zehazki zenbatetan). Aitzitik, corpus horretako aditz jokatu bidezko menpeko esaldien datu globalei begiratzen badiegu, V-a esaldi amaieran %46,7ko kasuetan aurkitzen dugu.

Nirean (ik. Eranskina) testu zaharrak jorratzen ditut eta osagarria eta aditzaren arteko hurrenkera erlatiboa dut aztergai. Orokorrean, OsV / VOs ratioa beti da handiagoa menpeko perpausetan erabateko zenbaketan baino. Izan ere, ratio hori handiagoa litzateke *zein*, *nola*, eta abarrekoen bidez eraturako menpeko perpausak sartu ez banitu, hauek batzuetan VOs hurrenkera eragiten baitute (*zeina baita polita* perpauslean bezalaxe).

Laburbilduz, uste dut *-n* eta *-la* atzizkiok menpeko perpausari ezartzen dieten egitura bateraezina dela VOs hurrenkerarekin, eta horri haien pan-dialektaltasuna gehitzen badiogu, aise ondoriozta dezakegu euskara komunean euskara historikoan indarrean dagoen joera berbera (hizkuntza OsV, baina ez zurruna, izaki, menpeko perpausetako OsV / VOs ratioa perpaus nagusietakoa baino handiagoa izango da) bazela indarrean.

3.3.4. Galdegaia

Azkenik, GG-aren gorabeherak dituzke aztergai euskararen hitz hurrenkera ikuspegi diakroniko batetik ikertzen duen euskalari orok. (14a-k)-n ikusi dugu GG-a aditzaren aurrean jartzeko baliabidea indarrean dagoela dagoeneko XVI. eta XVII. mendeetan, nahiz arras urrun dagoen derrigorrezkoa izatetik. Gainera, (16a-j)-n ikusi bezala GG-a markatzeko aditz ondoren jartzeko baliabidea (V-GG# edo V-X-GG#) erabili ohi da, tradizioaren hasieratik eta euskalki orotan.

Euskara komuneko ezaugarria al da, beraz, GG-V (~ V-GG#, V-X-GG#) hurrenkera? Ez bada komuna, behintzat bai pan-dialektala garai historikoetan. Eta ez bada komuna baina bai pan-dialektala, orduan jatorri poligenetiko, euskalki bereizietan era burujabe batean garatua, onartu beharko dugu. Hau berez ez da baztergarria gramatika pragmatikarekin hain nahasia dagoen eremu batean.

Baina ezaugarri komuna edo komun osteko poligenetikoa izan, funtsezkoa deritzot beste honi: pan-dialektala den GG-V (~ V-GG#, V-X-GG#) egitura horretan, V hori bi piezakoa –perifastikoa– izanez gero, pieza jokatu gabea aditz esparruan sartzen da, (14d, e, g, k, l', l'') adibideek erakusten duten moduan –eta askoz gehiago jartzea denbora eta leku kontua litzateke–. Horrek GG-V baliabide pragmatikoaren sorrerarako *post quem* argia ezartzen du: aditz perifrastikoaren sorrera, edo bestela esan, aditzoinen (*ikus*, *har*), partizipioen (*ikus-i*, *har-tu*),

aditz (jokatugabe) burutugabeen (*ikus-ten, har-tzen, lapurr-etan*) eta aditz (jokatugabe) geroaldikoen (*ikusi-ko, ikusi-ren*) sarrera aditz esparruan. Bestela esan, *Zer ikusi duzu? – Hori ikusi dut (nik)* prozedura sortzen denean, *ikusi dut* dagoneko aditz perifrastikoa zen, eta ez 'osagarri predikatibo – aditz'²¹.

GG-V hurrenkeraren pan-dialektaltasunarekin lotuta egon behar du *wh*-galderetako 'galde-sintagma - aditz' hurrenkerak (hau ere pan-dialektala). Azken finean, galdera batean galde-sintagma GG-a dugu. Badira, euskalki guztietan sakabanatuak, galde-sintagma eta aditzaren artean osagarria edo adjunturik –edo biak– txertatzen diren kasuak:

- (30) a. cergatic hanbat hon berrian biltcen duçu... ? (Tartas, *OHB*, 107)
b. Cergatic publicanoequin eta vicitze gaichto-tacoequin iaten du çuen magistruc? (Leiz., *Mat. IX*, 11)
c. Nolatán hori eçaguturen dut? (Leiz., *Luk. I. 18*)
d. Nor haourtcho haur içanen da? (Leiz., *Luk. I, 66*)
e. Zegaz ondoen serbitzen da Jaungoikoa? (Amilleta, [2])
f. noc oneen contra pecatu eguiten dau? (Kapanaga, 6. kap.)
g. Zegaiti laungoicoac emon euscun entendi-mêtua ? (Kapanaga, 17. kap.)
h. Zitel zirola, noc gudura aroa? (RS, 21)

Salbuespenok, hala ere, ez omen dira ezer zaharren irudi, autore ezberdinek hartzen dituzten lizentziak baizik. Halaber, GG-X-V hurrenkeraren agramatikaltasunak ere pan-dialektala dirudi, ezaugarri hori hizkuntza komunera gibelateratu edo ez. Horrek ez du esan nahi ez dugunik han edo hemen autore ezberdinen lanetan sakabanaturiko adibiderik, Lazarragaren *ainbat aseguin Silveroc artu eben* <1142r> esaldian dakusagun bezalaxe. Kasu solteak izaki, ez du ematen hauen azterketa sistematikoak ezerein ondorio diakronikoki interesgarritara eraman gintzakeenik.

21. Zuazok (2010: 150) markatu legez, GG-VJ-VJG egitura ekialdarra XVI. mendean geroztikoa da. Izan ere, Leizarragarengan ez da erabat ezezaguna: *Nor-ere enseyaturen baita bere viciaren saluatzan, harc du galduren hura* (*Luk. XVII, 33*); baina beheraxeago, andana berean: *Non ere içanen baita gorputza, hara bilduren dirade arranoac ere* (*Luk. XVII, 37*). GG-a aditz perifrastikoekin markatzeko, Leizarragak ia beti GG-VJG-(VJG-)VJ darabil: *Ecen non baita çuen thesaura, han içanen da çuen bihotza-ere* (*Luk. XII, 34*), *Hi aiz ene Seme maitea, hitan hartzen diat neure atseguin ona* (*Luk. III, 22*), *Berce hiriey-ere euangelizatu behar drauet laincoaren resumá* (*Luk. IV, 43*). Azken honetan, bi VJG sartzen dira aditz esparruan. *A contrario sensu*, inoizka VJ-VJG topatzen dugu baina beste funtzio batzuekin: *Eta nic dut ikussi, eta dut testificatu ecen haur dela laincoaren Semea* (*Joan I, 34*). Aurreko txatala irakurrita, badirudi kasu honetan pieza jokatugabearen aurreratzeak aditzari berari ematen diola garrantzia, eta hala bada mendebaldean *nik ikusi egin dut* bidez adieraziko litzatekeenari legokioke. Berdintsua hemen: *Eta ni nauçue eçagutzé, eta nondic naicén badaquiçue* (*Joan VII, 28*). Ematen du, bada, hasiera batean pieza jokatuaen aurreratzeak zenbait funtzio heterogeneo zituela, gerora fokua markatzearena nagusitu delarik. Dena den, tradizioaren hasierako hitz hurrenkeraren ikerketa xehe batek asko fin lezake hau. Bestetik, *egin* bidez aditza bera GG bihurtzeko prozedura mendebal-darra ere ezin da zaharregia izan. XVI. mende bukaeran bizkaitar fenomeno baina ez bide da (ik., *OEH*-an, *egin*-en 7. adiera). Hortik ekialdera zabaldu zen, harik eta XIX. mendean autore gipuzkoarren-gan ere agertu eta XX.ean emankor bihurtu zen arte, baita autore ekialdar batzuen artean.

Bukatzeke, planteatu dezakegu nola –zein faktorek eraginda– sortu datekeen GG-V hurrenkera. Uste dut galdera honi erantzuteko erkaketa tipologikoak rol garrantzitsua joko dezakeela, eta bereziki antzeko pragmatika jokoak agertzen dituzten hizkuntzen ikerketak, hungariera kasu. Barneko faktoreei erreparaturik, jorratu beharreko lehen hipotesia egitura pragmatiko ohikoenaren hedapen analogikoa izan liteke. SOV hizkuntza batean, maila pragmatikoan ohiko hurrenkera honakoa izango da: MG-GG-V (hots, *thema-rhema-V*), S-a topikoa (edo *thema*, mintzagaita, informazio ezaguna), eta O-a predikatua (edo *rhema*, galdegaia, informazio berri eta garrantzitsua) baitira usuenik. Kasu gehienetan informazio garrantzitsua aditzaren aurrean agertzen bada, horrek hitz hurrenkeratik kanpoko beste esparru batzuei ere erasan diezake, prosodiari esaterako, hortik erritmo trokaikoa sortuz (tipikoa OV hizkuntzetan). Horrela, OV hurrenkera linguistikoa eta GG-V hurrenkera pragmatikoaren arteko elkarketan GG-V egiturak berezko adiera eskuratzen badu, hura zein haren erritmo trokaikoa edozein testuinguru linguistikotara zabal litezke, dela hurrenkera linguistikoa SOV (neutroa nonbait: *Zer ikusi zuen gizonak?* - *Gizonak zaldia ikusi zuen*)²², SVO (*Nork ikusi zuen zaldia?* - *Gizonak ikusi zuen zaldia*), AdjVOS (*Noiz ikusi zuen zaldia gizonak?* - *Atzo ikusi zuen zaldia gizonak*), edo beste edozein.

3.4. Eta VO hurrenkera, izan al da inoiz?

Zergatik postulatu dute, bada, adituek VO hurrenkera bat hizkuntza zahar-aren garairen baterako? Funtsean, bi izan dira arrazoi nagusiak: 1) aurrizkiak, eta 2) aditz jokatueto morfemen hurrenkera. Ikus ditzagun banaka.

3.4.1. Aurrizkiak

Euskara historikoak, eta euskalki guztien jokabidea kontuan harturik aurrehistorikoak eta komunak, aurrizkiak hartzeko joera arrotz badu ere, badirudi haren morfologia fosilduan garai bateko prozesu atzizkitzaile azkar baten aztar-nak gorde izan direla. Aurrizki horiek, esan gabe doa, ez dira ez gaur, ez beste edozein fase historikotan, emankorrak izan, lexikoan fosildurik, edo aditzean trinkoturik, ageri baitira.

Har dezagun **kar* erroa. Honetatik, noizpait, aurrizki-erro egiturak eratorri dira: *e-kar*, *da-kar*, gehi *le-kar*-, *be-kar* modalak eta pertsona markaren adierazle guztiak (*na-kar*, *ne-kar*-, etab.), baina baita aurrizki-aurrizki-erro egiturak ere, faktitiboan: *e-ra-kar*. Aurrizki eransketa ezezik, aurrizki pilaketa ere emankorra izan dela faseren batean aditz jokatueto eratzeko, ezin habeto erakutsi du Lakarrak (2006: 584-585)²³. Hor eskaintzen digun eskeman, gorabehera foneti-

22. Adibideok, esan beharrik ez, gaur egungo esaldi arruntak dira.

23. Aurrizkiak izateak ez du atzizkirik eza inplikatzeko, eta ziur aski hauek ere baziren hizkuntzan, aurrizkiekin batera. Tipologikoki, aurrizkiak atzizkiak baino bitxiagoak, eta hortaz urriagoak dira. Ia ez dago bakarrik aurrizkiak dituen hizkuntzarik. Bakarrik atzizkiak dituztenak ordea bai, batez ere OV hizkuntzetan (ik. 3.2.).

ko erregularrak (-VdV- > -VØV-, -VIV- > -VrV-, e- > i-, batzuetan, etab.) kontuan hartuz, lexiko nuklearreko aditzen jatorrizko formek prozedura morfologiko zeharo erregularra erakusten dute. *Jaun*-en kasuan, demagun, zentzuzkoa dirudi **dun* > **da-dun* (1. aurrizkitzea) > **e-da-dun* (2. aurrizkitzea) antzeko aldaketa bat onartzeak (eta gero **edadun* > *jaun*)²⁴. Are gehiago, lan berriago batzuetan (ik. adib. 2009a: 584) iradoki du euskararen fonetikaren aztertzaileoi buruhausterik franko eman diguten hainbat -VrV- (*arraultze*, *arrain*, etab.) agian azal litezkeela aurrizki-aurrizki-aurrizki-erro egitura batetik abiatuz. Hala nola, **e-da-ra-dul-tze* (hiru aurrizkitze prozesurekin)²⁵ > *arraultze*.

Azken etimologia hau zuzena ez balitz ere, uste dut baieztza dezakegula, beldurrik gabe, hizkuntza noizpait aurrizkitzailea –edo **e-da-ra-dul-tze* bezalako formak ontzat jotzen baditugu, are ultra-aurrizkitzailea– izan zela. Eta hala bada aukera gehiago ditu, aurrizkitzailea zen fase horretan, SVO hizkuntza izateko (SOV hizkuntza izateko baino). Hala dio tipologiak, Hawkins & Gilligan-ek (1988) erakutsi legez, zenbait lagin baliatuz²⁶. Egia esan, hor aurkeztutako datuak ez dira biribilak, edozein laginetan bezala honetan ere salbuespenak baitaude. Baina lagin guztien arabera, aurrizkiak askoz lotuago daude VO hizkuntzei OV hizkuntzei baino.

Gilligan-en laginean, adib. (ik. 1988: 229-230), lagin bateko hizkuntza bakoitzari aurrizki / atzizki ratio bat esleitzen zaio²⁷, eta gero hizkuntza guztien ratioak sartzen dira, batez besteko bat lortzeko. Hau egin daiteke kategoriaren (aditz aurrizkiak edo atzizkiak, izen aurrizkiak edo atzizkiak) edo hizkuntzaren arabera (VO hizkuntzak, OV hizkuntzak, etab.). Bada, OV hizkuntza guztietako aurrizkitzaile / atzizkitzaile ratioa honakoa da: aditz kategorien artean %20 aurrizki / %80 atzizki; aitzitik, izen kategorien artean → %13 / %87.

Izan al du euskarak inoiz aurrizkirik izen morfologian? Lakarraren (2006: 569) arabera bai, kontuan hartzen badugu *sa-bel*, *sa-kon*, *gi-bel*, *gi-zen* bezalakoetan CV-CVC egitura dugula, eta CV ezin izan daitekeela lexema bat. Hortaz, aurrizki bat izan zen jatorriz, harik eta aurrizki-erro hori lexema disilabiko batean lexikalizatu zen arte. Hau zuzena izan edo ez, ezin uka daiteke, aurreko datuak ikusita, aditz morfologian behinik behin euskarak aurrizkiak, edo are aurrizki-artizki pilaketa, izan duela lexematik ezkerre. Eta horrenbestez, aurrizkitzailea zen garairako, VO izateko probabilitate handiak esleitu dizkiogu hizkuntzari.

24. Jakina, 2. aurrizkitzeak lehen aurrizkia artizki bihurtzen du. Beste posibilitate bat da ezkerrenera zegoen elementua sortu izana eta gero artizkia (adib., **kar* → *da-kar* (aurrizkitzea) → *da-ra-kar* (artzizkitzea)). Baina hala balitz ere, bi morfemak lexematik ezkerre leudeke.

25. Edo aurrizkitze prozesu bat eta bi artizkitze prozesurekin.

26. Greenberg-en lagineko 30 hizkuntzetarik (ik. Hawkins & Gilligan 1988: 220), VO hizkuntzen artean, 1-ek aurrizkiak bakarrik ditu, 16k aurrizkiak zein atzizkiak, eta 2k atzizkiak bakarrik. OV hizkuntzen artean ordea, hurrenez hurreneko baloreak: 0, 1, 10.

27. Adibidez, hizkuntza batean (morfemen bidez adierazten diren) 6 aditz kategoria badaude, eta haietarik 1 aurrizkien bidez adierazten bada, 4 atzizkien bidez, eta 1 aurrizki zein atzizkien bidez, orduan azken honek 0,5 aurrizkitzaile eta 0,5 atzizkitzaile kontatuko du, aurrizkitzaile / atzizkitzaile erabateko ratioa 1,5 / 4,5, ergo %25 / %75, izango delarik.

Hala ere, ematen du prozesu aurrizkitzaileak agorturik zeudela hizkuntza komunean, ez zirela jadanik emankorrak euskalkiak sakabanatzen hasi zirenean. e-CVC egiturako aditz gehienak, edo pisu handienekoak oinarritzko lexikoan, bederen (*e-gin*, *e-kar*, *e-kus*, **e-kas*, *e-dan*, *e-bil*, *e-zan*, *e-tor*, etab.), garapen fonetiko eta semantikoko gorabehera, euskalki orotan ageri dira. Honek aditzera ematen du, ene iritziz, euskara komunaren azken fasean, edo bestela esan, zatiketa dialektalaren aurreko nean, **e-* aurrizkia jadanik ez zegoela bizirik, hau da, haren eransketa / ez-eransketa oposaketak ez zuela adiera bereizkuntza sistematikorik ekoizten, dagoeneko fosildurik edo morfologizaturik zegoela, alegia. Orobat, oinarritzko lexikoko CVC egiturako erroak, haietariko asko aditzezko adierakoak, **e-* aurrizkirik gabe geratu dira euskalki guztietan (*min(-du)*, *sal(-du)*, *gal(-du)*, *gor(-tu)*, *sor(-tu)*, *sar(-tu)*, etab.).

Badira salbuespenak, hots bakarrik euskalki batzuetan ageri diren e-CVC egiturako aditzak²⁸. Baina hauen arrazoa, hizkuntza komuneko e- / e-rik eza oposaketa bainoago, komun osteko garaian euskalki bakoitzean gertatutako desagertzen lexikoa dela esango nuke. Hala nola, *jín* aditza (**e-dín*) lap. behe-naf. zub.-tik kanpo desagertu da lexikotik (ez da partizipioa), baina aditz laguntzaile moduan (*da-dín*, etab.) pan-dialektala da. Ematen du, bada, euskara komunean *na-dín*, *ha-dín*, *da-dín*, etab., zein **e-dín* bazirela, baina lehenak euskalki guztietan bizirik iraun duen bitartean (subjuntibozko aditz laguntzaile iragangaitzeko eginkizunean), bigarrenaren garapen fonetikoak, > *jín* aditz jokatu gabeak (hiztegia ageri zaigun elementu lexiko bat, beraz), iparraldean (eta zar.z eta erronk.z) baino ez duela bizirik iraun. Gainontzeko euskalkietan, agian *etorri*-k bazterturik, desagertu bide da²⁹.

Aditz jokatu etako morfologjako aurrizkiak ere, *na-*, *ha-*, *ga-*, *za-*, *nen-*, *hen-*, *gen-*, *zen-*, *ne-*, *he-*, *da-*, (z)e-, *la-* / *le-*, *be-*, etab., oro har berberak dira euskalki guztietan, euskara komunaren hondarrean aurrizkitzea prozesu burutuia zelako irudi. Gainera, pertsona markek agerian uzten dute aditz morfologian behinik behin hizkuntza dagoeneko ergatiboa zela, honek dauzkan SVO hurrenkerarekiko bateagarritasun arazoekin (ik. 3.2.).

28. Edo euskalki guztietan e-CVC zein CVC(-du) posibilitateak agertzen dituen errorik, *bil* erroa kasu (*e-bil-i*, *bil(-du)*). Baina honek araua baieztatzen duen salbuespena ematen du.

29. Ezin egin, hemen, banan-banan azterketarik. Esan bezala, pan-dialektalak ez diren salbuespenak badira. Nolanahi, norbaitek salbuespenetan oinarrituz (adib. *eutsi* (< **e-duts-i*), *erasi*, *igorrí*, *igarrí*, *igurtzi* (eta aldaerak ik. *OEH-a*), *itsatsi*, etab.) **e-* aurrizkia euskara komunean indarrean zegoela argudiatuko balu, edozein kasutan onartu beharko luke, hauetariko kasu gehienetan *e-/i-* pandialektala izaki, **e-* ren lexikalizazioa burutzeko zorian zegoela. Nire planteamenduaren arabera, dena delarik ere, erabat burututa legoke prozesua zatiketa dialektalaren hasieraren nean. Bestelakoa da **e-da-CVC* eta *e-ra-CVC* egituren kasua. Hemen emaitza dialektalak askoz zatikakoagoak dira, oro har, eta salbuespenak ugariagoak: *jausi*, *jauzi*, *jagon*, *jasan*, *jasarri*, *jazarri*, *erausi*, *erauzi*, *jare(g)in*, *erasan*, etab. Bi azalpen posible kausitzen ditut: 1) artizkitzea (baina ez aurrizkitzea) oraindik indarrean zegoen, euskara komunean; 2) artizkitzea ez zegoen indarrean euskara komunean, baina hauek hitz eratorriak izaki, semantikoki bigarrenkariak, gainbehera lexiko eta desagertepenerako joera bereziki bizia pairatu dukete, euskalki batzuetan (hots, **e-CVC*-rako azalpen berdina).

3.4.2. Aditz jokatueta morfemen hurrenkera

SOV < SVO eratorzeko beste argudio nagusia aditz jokatueta morfemen hurrenkera dugu³⁰. Hau Trask-ek (1977) eztabaidaratu zuen. Haren arabera, *na-tor* bezalako adizkietan, ukaezina dirudi hasierako morfema jatorri izenordainez-kokoa dela, eta behin-behinek < **na-da-tor* berreraiki zuen, nahiz < **ni-da-tor* posibilitatea ere aipatu zuen. Givón-en printzipioa oinarri harturik, zeinen arabera garuko morfologia atzoko sintaxia den, ondorio saihestezina da euskararen hitz hurrenkera SV izan dela noizpait. Hala ere, aditz iragankorretan eratorpena *na-kar* < **na-da-kar* (edo < **ni-da-kar*) izango da, eta kasu honetan euskara historikoan behintzat ez dugu SV, *na-* objektua delarik. Arazo hau ekidite aldera, eta kontuan harturik **na-da-tor* eta **na-da-kar* formalki identikoak direla, Trask-ek iradoki zuen ez ote zen **na-da-kar*, jatorriz, egitura pasibo bat izango, gerora aktiboki berrinterpretatua, hizkuntza polinesiarretan gertatu den bezala.

Ene iritziz ildo zuzena da hau, baina zenbait zehaztapen egin dakizkiokela-koan nago. Trask-en (1977) planteamenduan, *na-kar* bezalako aditz iragankor-rrak pasiboetatik zetozenez, morfema pasibizatzaile ageriko bat behar zen. Hau iraganaldi-irrealiseko joskeretan bilatu zuen, *ne-karr-en* / *nen-karr-en* bezalako oposaketetan hain zuzen. Bigarren forma *ne-n-karr-en* zatikatu zuen, *-n-* bilatzen ari zen morfema pasibizatzailea zelakoan. Baina onarpen honek konta ezin ahala arazo zekarzkie. Haien artean, esperogarría litzateke 3. pertsonan ere morfema bera aurkitzea, baina ***ze-n-karr-en* bezalako ezer ez dago inon (ez, behinik behin, testu zaharretan). Bigarrenik, *ne-karr-en* / *nen-karr-en* motako oposaketak 1. eta 2. pertsona singularrekoetan baino ez ditugu. Pluralekoetan, ostera, hasierako morfemak *-n-* agertzen du beti, dela hau egilearen (*gen-(d)u-en*) edo jasailearen (*gin-t-u-en* < *gen-*) morfema. Azkenik, bada berak aipatzen ez duen beste arazo bat: Orainaldiko joskeretan ez dago inon *-n-* horren aztarnarik. Azken arazoa izan ezik, gainontzekoetarako konponbideen bila aritu bazen ere, amaieran Trask-ek (1977: 211-212) *-n-* pasibizatzailearen argudioaren ahulezia onartu zuen.

Uste dut Trask-en hipotesiaren arazoak aski erraz konpon daitezkeela, joske-
ra iragankorrek egitura pasiboetatik datozelako hipotesia (arreta gutxi eman
zaien) Lafon-en (1954) ikuspegjekin bateratzen badugu. Hauen arabera, euska-
rak, fase zaharrenean, ez zuen diatesi gramatikalizaturik! Bestela esan, aditz
erroak aditzeko ideia hutsa adierazten zuen, balore diatetikoaren determinazio-
rik gabe. Horrela, **tor* erroak 'etorri' adierazten zuen, baina **kar* erroak ez zuen

30. Bada hirugarren argudio bat, ezezko perpausetako hurrenkera alegia, batez ere Trask-ek baliatzen duena. Baina honen eragozpen bat litzateke euskalki orotako testu zaharretan VJG.-ez-VJ sari ageri zaigula: RS. (18) *ta ençun eztaçu guextoric*, RS. (220) *lazquereac parrahua eguite ez du*, RS (228) *Matrazu orrec hurte ez eban carcaj orretarean*, Laz. <1151v> *eçe nic ychico eçteuçut*, Laz. <1164r> *çegaiti jaunac eguin ez naben*, Leiz. (Mat. X, 23) *non ethor eztadin guiçonaren Semea*, Etx. (X, 12) *Onerizte gabez vzten eçitut*, Etx. (XV, 8) *Ceren eceyn scripturan erideiten ezpai-tzen*, Oih. (242) *Hitz eztik mihia zaurtzen eztik*, etab. Hauei emiliotar glosetako *guc* *ajutuezdugu* gehitzen badiegu, badirudi ezezko perpausak eratzeko modu emankorra zela Erdi Aroko euskarari. Ez halabarrez bakarria, baina hau guztia gogoan nik ez nuke ezezko perpausetako hurrenkera SVO hurrenkeraren antzinatasunaren alde erabiliko.

'ekarri' adierazten, 'ekarri ~ ekarria izan' baizik. Lafon-ek aipatzen ez badu ere, txineraren paraleloa ezin aproposagoa dugu. Txinera mandarinez, *yú chī-le* 'arrai-nak jaten du' nahiz 'arraina jana izan da' izan daiteke, testuingurua edo esaldia-ren segidaren arabera. Posibilitate hau euskarara badakargu, pentsa dezakegu Trask-en **na-da-kar*, edo agian hobeto **ni-da-kar* 'nik dakart ~ ni ekarria naiz' zela. Lafon-ek berak markatu zuen legez, Iraganaldi-irrealiseko joskeretan (berak 'irréel' zeritzenetan) egoera horren aztarnak geratu dira. Hala nola, *ne-karr-e-n* aditz jokatuco lehen elementua egilea da, baina ia identikoa den *nen-karr-e-n* aditz jokatuan, ordea, lehen elementua jasailea da. Jatorriz elementu bera bali-ra³¹, diatesi gramatikalizaturik gabeko fase horren irudi izango genuke.

Orainaldiko joskeretan, ordea, morfologia uztartuaren arabera ez dago egoe-ra horren aztarnarik (honetan aditz hasierako elementua beti jasaileari baitago-kio). Zergatik ez? Bada, dirudienez, Orainaldian –jatorriz ziur aski inperfektibo bat– aldaera pasiboak nagusitu zirelako. Diatesi gramatikalizaturik gabeko fase batean, /Peru egile, ni jasaile, 'ikusi ~ ikusia izan'/ ideia adierazteko bi eratan egin zitezkeen: **Peru da-kus ni* (aktiboki) edo **ni da-kus Peru-k* (ziur aski < -ga) (pasiboki). Dirudienez, behintzat jasailea 1. edo 2. pertsona zen kasuetan, Orainaldiko joskeretan pasiboa nagusitu zen, eta hortik **ni da-kus* > **n(i)(-)(d)a-kus* > *na-kus*.

Excursus morfologiko honek ez gaitu hitz hurrenkeratik gehiegi desbideratu, zeren Orainaldiko 'jito pasibizatzaile' honek azal baitezake SVO > SOV aldaketa zergatik gertatu zen, hain zuzen. Perpausak pasiboki adierazten badira, orduan subjektua jasailea izango da, eta egilea aditzaren ondoren agertuko da, osagarri egilezkoko funtzioetan. Peruk nakusala adierazteko **ni da-kus Peru-ga* esango dugu, baina nik Peru dakusadala esateko **Peru da-kus ni-ga*³². Eta horrela per-

31. Eta hauxe da, nire ustez, konponbiderik ekonomikoena. Hainbat aditu, Trask barne, -*n*- gramatikalki interpretatzen saiatu dira, baina Trask-en arazo berberak, edo are larriagoak, topatu dituzte. Faserik zaharrenean, **tor* eta **kar* aditz erroen bereizketa diatetiko gramatikalizaturik ez bazen, orduan ez dago arrazoirik *ne(n)-karr-en* forma *nen-torr-en* bezalakoa ez izateko. Nire interpretazioaren arabera, hasieran *nen-* (eta *hen-*, etab.) izenordain bat baino ez zen, agian *ni* (eta *hi*, etab.) seriearen ondoko beste serie bat osatzen zuena, eta Iraganaldi-irrealiseko joskeretan azaltzen zena. Beraz, *nen-torr-en* 'etorri nintzen' izango zen (beste kategoria gramatikalen arazoak gorabehera, jakina, eta gogoan izanik hau irudikapen hipotetikoa baino ez dela), baina *nen-karr-en* 'ekarri nuen' zein 'ekarri izan nintzen'. Diatesia ergatibitatearen formapean gramatikalizatu zenean, *nen-karr-en* bi formatan banatu zen: abs. *nen-karr-en* (*nen-torr-en* bezala), erg. *ne-karr-en*, *egun* ~ *egu-berri* bezalako txandaketetan ageri den prozedura beraren bidez. Pluralean hau ez zen gauzatu (*gen-*, *zen-*, etab.). Bi izenordain serie izatearen aztarna (bata *ni*, *hi*, etab., bestea *nen*, *hen*, etab.) 1. p. sg.eko izenordainen kasu eraketan topa genezake. Abs.a, erg.a dat.a eta –gen.a izan ezik– gainerako kasu guztiak *ni* formaren gainean erazten diren bitartean, gen.an *ene* da hizkuntza komunerako berreraiki beharreko forma. Ezin etor al liteke forma hau < **nen-e* -tik, geroztiko disimilazioarekin (**nen-e* > *ene*)? Hala balitz, interpreta genezake **nen-e* zera zela: *nen* izenordaina + -e genitibo zaharra. Hau guztia Martínez Areta (2012)-n xehekiago azaltzen dut.

32. Lakarrak (2005) ergatibozko -*k* bizardunen lekuzko kasuak eratzeko behar den -*ga* elementuarekin (*Jainko-a-ga-n*, *gizon-a-ga(-n)-a*, etab.) lotu du. Haren arabera, -*ga* 'lokatiibo orokorra' litzateke hasiera batean, baina bizarduneko harreman honek kutsu egilezkoa eman zion, gerora 'John kissed Mary' motako testuinguruetan bikoiztasunak saihesteko ergatibozko marka bihurtu zelarik. Aurkezten ari naizen hipotesiaren barnean, -*ga* lokatiibo orokorra litzateke jatorriz, baina ergatibozko marka bihurtzeko ibilbidea bestelakoa litzateke, jarraian zehazten dudan moduan.

paus irudikagarri orekin. Ez dakigu zergatik gauzatu zen jito pasibizatzaile hau, baina morfologia uztartua arras argia da puntu honetan³³.

Bada, interpretazio honetatik abiatuz, SOV hurrenkera sortu zen SVOs. Eg. egitura pasiboak emankortasun gehiegi hartzen ari zirelako. Azken finean, Os.Eg.a bidez, definitua eta informazio ezaguna izan ohi da. Joera unibertsala horrelako elementu bat perpausaren hasieran amaieran baino maizago agertzea izango da. Hortaz, topikalizatze joera agertu zen, eta azkenean topikalizazio hau hain zen sistematikoa, ezen perpaus osoa aktiboki berrinterpretatu zen: Os.Eg. → A, S (jasailea) → O, eta V-zehazg. → V-iragk. (hots, aditza diatetikoki zehazgabea izatetik iragankorra izatera igaro zen). Jasailea 3. p.koa izanez gero, emaitza honakoa litzateke: **Jone dakus Peru-ga* 'Jone ikusia da Peru-k' > **Peru-ga Jone dakus* 'Peru-k Jone ikusia da', eta azkenik > *Peru-k Jone dakus* 'Peruk Jone dakus'. Horrela, SVO > SOV aldaketa gauzatu zen³⁴.

Beraz, Orainaldiko (edo are, inperfektiboko) 'jito pasibizatzaile' hau izan zen, ene iritziz, SVO > SOV aldaketaren arrazoia, edo behintzat arrazoietakoa bat. Bestela dira gauzak Iraganaldi-irrealiseko joskeretan, baina honek arazo morfologiko ugari planteatzen ditu, ez halabarrez hitz hurrenkeraren arazoari lotuak (ik. Martínez Areta, 2012).

4. AMAIERAKOA

Eremu diakronikoan, defenditu dut euskalkien ezaugarri komunak (abs./erg. oposaketa NP zein VP morfologietan, atzizkitze soila, GN / NPosp ezaugarriak, eta aditza amaieran *-n* eta *-la* bidezko menpeko perpausetan) SOV tipologiarekin bateragarriagoak direla, eta horrenbestez euskara komuna SOV zela. Hala ere, badira zenbait ezaugarri eta kategoria, euskara komunitik tradizio idatziaren hasierara bitartean aldaketa handia pairatu duketenak, eta gaurdaino ikertzeke

33. Baita morfema uztarturik ez duten, eta horrenbestez bikoitzak diratekeen *da-kus* bezalako kasuetan ere, zeren hauetan jasailea plurala (eta jatorrian definitua) denean, eranstean den marka absolutibozkoa da (erka bitez abs. *dabil-tza*, *dakar-tza* / erg. *dakar-te*), beraz subjektu jasailea aurreko fasean.

34. Interpretazio hau ez da guztiz berria, Trask-ek (1997: 247) jadanik aurkeztu baitzuen. Hala ere, haren azalbidean argi geratzen da hogeiki urte beranduago oraindik ez dakiela morfema pasibizatzaile agerikorik ezaren arazoa nola konpondu:

"That leaves the ergative morphology to be accounted for, and here even speculation becomes difficult. The change from VO to OV syntax, if it occurred, would probably have come about via the increased use of an originally marked construction, and that construction could have been a passive or a 'get'-construction. For example, an original canonical transitive like 'John hit Peter' might have been replaced by something along the lines of 'Peter got his hitting from John', a construction type well attested in the world's languages and one which often develops into a passive. So, using purely modern words and forms, we might hypothesize an ancient **Jon jo zuen Kepa* being replaced by a marked form **Kepa jo zuen Jon-ek* (which in fact is fully grammatical in modern Basque in the sense of 'It was Peter that John hit'); reanalysis of this as an unmarked form, followed by movement of the new subject to initial position, would have produced the modern *Jonek Kepa jo zuen*. Such a development would imply that the absolutive NP was once the subject of the innovating transitive construction, and hence a period of ergative syntax".

daudenak. Hauetariko batzuk GN/NG eta ReIN/NRel hurrenkera erlatiboak, aditz esparruaren zabaltzea, OV/VO nagusietan / menpekoetan parametroa eta/edo elkarreragina, eta mintzagai / galdegai jokoak esaldiko kokagune ezberdinetan.

Euskara komunaz haraindi (atzerago) begira, euskal aditz morfologia noizpait aurrizkitzailea izan dela gogoan hartuta, argudiatu dut ziur asko euskara aurreko-muna, punturen batean, SVO izan zela, eta Trask-i (1977) jarraiki, SVO > SOV aldaketaren faktore nagusia perpaus pasiboetako osagarri egjlezkoren topikalizazioa izan zela iradoki dut.

5. BIBLIOGRAFIA

- ALTUBE, Severo. *Erderismos*, 1. arg. Bermeo: Euskaltzaindia, 1929; 315 orr.
- ANGOS PEÑA, Alberto. *Errorrikeria (I). Gramatika*. 1. arg. Donostia: Hiria, 2005; 106 orr.
- ARANA, Aitor. *Zaraitzueria. Iksaliburua*. 1. arg. Donostia: Hiria, 2006; 219 orr.
- CAMINO, Iñaki. *Hego-nafarrera*. 1. arg. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2004; 267 orr.
- DE RIJK, Rudolf. "Is Basque an S.O.V. language?". In: *De linguae vasconum: selected writings*. Bilbo: ASJU-ren Gehigarriak, nº 43, 1969/1998; 13-37. orr.
- . "Erlatiboak idazle zaharengan". In: *De linguae vasconum: selected writings*. Bilbo: ASJU-ren Gehigarriak, nº 43, 1980/1998; 203-210. orr.
- DIXON, Robert Malcolm Ward. *Ergativity*. 1. arg. Cambridge Studies in Linguistics, 1994; 271 orr.
- DONEGAN, Patricia J.; STAMPE, David. "Rhythm and the holistic organization of language structure". In: J. Richardson et alii (arg.). *Papers from the Parasession on the Interplay of Phonology, Morphology and Syntax*. Chicago Linguistic Society, University of Chicago, 1983; 337-353. orr.
- . "Rhythm and the Synthetic Drift of Munda". In: R. Singh (arg.). *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics*, 2004; 3-36. orr.
- ETXEPARE, Ricardo. "Negation". In: J. I. Hualde, J. Ortiz de Urbina (arg.). *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton, 2002; 387-421. orr.
- GIVÓN, Talmy. *On Understanding Grammar*. 1. arg. New York: Academic Press, 1979; 379 orr.
- GÓMEZ, Ricardo. "Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra?". In: J. B. Orpustan (arg.), *Le basque parmi les autres langues: influences, comparaisons*. Bordele-Baiona: Univ. de Bordeaux III & CNRS, 1994; 93-114.
- GROSU, Alexander; THOMPSON, Sandra. "Constraints on the Distribution of NP Clauses". In: *Language*, nº 53, 1977; 104-151. orr.
- HAWKINS, John A. "Implicational universals as predictors of word order change". In: *Language*, nº 55, 1979; 618-648. orr.
- . *Word Order Universals*. 1. arg. New York; Londres, etc.: Academic Press, 1983; 342 orr.
- .; GILLIGAN, Gary. "Prefixing and suffixing universals in relation to basic word order". In: *Lingua*, nº 74, 1988; 219-259. orr.

- HIDALGO, Bittor. "Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, S. V. O.?" In: *Fontes Linguae Vasconum*, nº 70, 1995; 401-420. orr.
- . "Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari". In: *Fontes Linguae Vasconum*, nº 71, 1996; 21-43. orr.
- . "Hitz ordenaren estatistikak euskaraz". In: *ASJU*, nº 33(2), 1999; 393-451. orr.
- . "Kardaberazen hitz-ordena eskola". In: Pérez Gaztelu & Zulaika (arg.). *Agustin Kardaberaz. Hirugarren Mendueurena (1703-2003)*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004; 159-211. orr.
- . "Erlatiboak iparraldean *Haur prodigoaren* 141 itzulpenetan". In: Etxepare & Gómez & Lakarra (arg.). *Beñat Oihartzabali gorazarre*. Bilbo: ASJU-ren Gehigarriak, nº 43, 2009; 447-483. orr.
- HUALDE, José Ignacio; ELORDETA, Gorka; ELORDIETA, Arantzazu. *The Basque Dialect of Lekeitio*. Bilbo: ASJU-ren Gehigarriak, nº 34, 1994; 314 orr.
- HYMAN, Larry M. "On the change from SOV to SVO: Evidence from Niger-Congo". In: L. M. Hyman (arg.). *Word Order and Word Order Change*. Austin/Londres: University of Texas Press, 1975; 113-147.
- IRIGOIEN, Alfontso (arg.). "Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue". In: *Euskera*, nº 2, 1957; 119-170.
- . "Consideraciones históricas en torno al genitivo posesivo vasco". In: *De re philologica linguae vasconicae, II*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1976/1987; 177-179.
- LAFON, René. "Comportement syntaxique, structure et diathese du verbe basque". In: *Vasconiana* (= Iker-11). Bilbo: Euskaltzaindia, 1954/1999; 529-555.
- LAKARRA, Joseba Andoni. "Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco". In: *Paleohispanica*, nº 5, 2005; 407-470.
- . "Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco". In: Lakarra & Hualde (arg.). *R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalari-tza historikoaz*. Bilbo: ASJU-ren Gehigarriak, nº 40, 2006; 561-622.
- . "Adabakiak /h/-aren balio etimologikoaz". In: Etxepare & Gómez & Lakarra (arg.). *Beñat Oihartzabali gorazarre*. Bilbo: ASJU-ren Gehigarriak, nº 43, 2009a, 565-596.
- . "Forma canónica y cambios en la forma canónica de la lengua vasca: hacia los orígenes del bisilabismo". In: *Palaeohispanica*, nº 9, 2009b, 557-609.
- LEUMANN, M.; HOFMANN, J. B.; SZANTYR, A. *Lateinische Grammatik II: Syntax und Stilistik*. München: C. H. Beck, 1965.
- LI, Charles N.; THOMPSON, Sandra A. "An explanation of word order change SVO → SOV". In: *Foundations of Language*, nº 12, 1974; 201-213.
- MANNING, Christofer D. *Ergativity. Argument structure and grammatical relations*. 1. arg. Stanford, California: CSLI Publications, 1996; 222 orr.
- MARTÍNEZ ARETA, Mikel. "Nor-Nork sailaren sorreraz". 2012 (ASJU-n argitaratzeko).
- MITXELENA, Koldo. *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa, 1953a/1990; 250 orr.
- . "Arnaut Oihenart". In: Lakarra & Echenique & Urgell (arg.). *Sobre Historia de la lengua vasca*. Donostia: ASJU-ren Gehigarriak, nº 10, 1953b/1988; 866-879.

- . *Textos arcaicos vascos*. Donostia: ASJU-ren Gehigarriak, nº 11, 1964/1990; 201 orr.
- . “Notas lingüísticas a ‘Colección diplomática de Irache’”. In: *Palabras y textos*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1969/1987; 87-140.
- . “Nombre y verbo en la etimología vasca”. In: *Palabras y textos*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1970/1987; 283-309.
- . “Onomástica y población en el antiguo Reino de Navarra: la documentación de San Millán”. In: *Palabras y textos*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1971/1987; 59-72.
- . “Ibérico -en”. In: *Lengua e Historia*. Madril: Paraninfo, 1976/1985; 379-387.
- . “Lengua común y dialectos vascos”. In: *Palabras y textos*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1981a/1987; 35-55.
- . “Galdegaia eta mintzagaia euskaraz”. In: Lakarra & Echenique & Urgell (arg.). *Sobre Historia de la lengua vasca*. Donostia: ASJU-ren Gehigarriak, nº 10, 1981b/1988; 656-673.
- . “Algunos nombres de Contrasta”. In: J. A. Lakarra et alii (arg.). *Sobre Historia de la Lengua Vasca, II*. Donostia: ASJU-ren Gehigarriak, nº 10, 1985/1988; 614-619.
- MOUNOLE, Celine. “Perifrasi zaharra mendebalde eta erdialdeko euskara zaharrean: azterketa kuantifikatiboa eta proposamen berria”. In: *ASJU*, nº 41 (1), 2007; 67-138.
- NÜBLING, Damaris. *Historische Sprachwissenschaft des Deutschen. Eine Einführung in die Prinzipien des Sprachwandels*. Tübingen: Narr Francke Attempto Verlag, 2006; 293 orr.
- ORTIZ DE URBINA, Jon. “Focus of Correction and Remnant Movement in Basque”. In: X. Artiagagoitia, P. Goenaga, J. Lakarra (arg.). *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: ASJU-ren Gehigarriak, nº 44, 2002; 510-524.
- OSA UNAMUNO, Eugenio. *Euskararen hitzordena*. 1. arg. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990; 312 orr.
- REMENTERIA, Íñigo. *Abizen bizkaitarrak*. 1. arg. Erroteta; 316 orr.
- TRASK, Robert Lawrence. “Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypotheses”. In: W. A. Douglass, R. W. Etulain, W. H. Jacobsen (arg.). *Anglo-American Contributions to Basque Studies: Essays in Honor of Jon Bilbao*. Reno: Univ. of Nevada, 1977; 203-217.
- . “On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque”. In: J. A. Hualde; J. A. Lakarra; R. L. Trask (arg.). *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 1995; 206-234.
- . *The History of Basque*. 1. arg. Londres: Routledge, 1997; 458 orr.
- VENNEMANN, Theo. “Explanation in syntax”. In: J. Kimball (arg.). *Syntax and Semantics*. Vol. II. Austin: University of Texas Press, 1973; 1-50.
- VILLASANTE, Luis. *Sintaxis de la oración simple*. 1. arg. Oñati: Editorial Franciscana Aranzazu, 1980; 268 orr.
- ZUAZO, Koldo. *El euskera y sus dialectos. Origen, evolución y propuestas de futuro*. 1. arg. Irun: Alberdania, 2010; 218 orr.

ERANSKINA. Hitz hurrenkerako indizeak, zenbait autore zaharrengan

Hona hemen zenbait testu zaharretan bildu ditudan indize batzuk. Testuen hautaketan olerki testuak (neurekerak eta erimak hitz hurrenkera baldintzatu baitezakete) eta elkarrizketazko egiturako katezismoak (euren estilo erreplikakorrek usu balore batzuk gainordezkatzeko baititu) saihestu ditut.

Lehen zutabearen (OsV / VO) agerpen guztiak sartuta daude. 1. atalean esan dudan bezala, Os edozein osagarri da, hots beti aditzaren menpeen dagoen elementua. Aditza iragankorra bada, orduan objektu zuzena. Ez badago objektu zuzenik, orduan osagarri predikatua, eta hau ez badago, zeharkako objektua. Aditza iragangaitza bada, orduan osagarria haren semantikatik gertuen dagoen elementua izango da. Mugimenduzko aditza izatekotan, orduan alatiboa (*etxera joan naiz*) edo ablatiboa (*etxetik etorri nintzen*). Estatikoa bada, inesiboa (*etxean egon nintzen*). Ez badago lotura semantiko zuzena duen elementurik, orduan aditzaren menpeen dagoen adjuntua (*etxean itxaron zaitut, atzo etorri nintzen*). Baina bestela, testuinguruak ez du inongo rolik jokatzeko osagarria hautatzeko³⁵. Hidalgok bezala, *wh*-galderak zenbaketatik at geratzen dira, bai eta menpeko galderazko perpausak, eta osagarri bikoitzeko esaldiak (*tabernatik etorri nintzen etxera*). Aditzari dagokionez, azterketan sartzen den pieza beti da zama lexikoa dakarrena (ez *naiz tabernatik etorri, lehenago esan behar zenidan*, etab.). Aditz jokatugabeak ere sartzen dira analisisian, baldin eta haien menpeko osagarri bat baldin badago³⁶.

Bigarren zutabearen (OV / VO), osagarri hori objektu zuzena den kasuak bereizten dira. Hirugarrenean (OsLuzea.V / V.OsLuzea), osagarria zehazteko irizpideak lehen zutabeko berdinak dira, baina bakarrik osagarri luzeak sartzen dira, hots konpletibozkoak eta erlatibozkoak. Laugarrenean (hots, (OsV / VO)_{Menp}), menpeko perpausen barneko hurrenkerak zenbatzen dira. Menpeko perpausen artean sartzen dira: konpletibozkoak (baina ez galderazkoak, hauek baztertzeko baitira), erlatibozkoak (-*n* nahiz *zein* bidez eratuak), kausazkoak, helburuzkoak, denborazkoak, baldintzazkoak, moduzkoak, etab³⁷.

35. Adibidez, *Noiz ikusi zenuen mutila? - Atzo ikusi nuen mutila* esaldia (erantzuna) VO da, testuinguruak baldintzaturik bada ere (*atzo* galdegaia delarik). Zalantzak izan ditut hau horrela egiteko, baina beste aukera (testuinguruak baldintzatutako esaldiak baztertzea, alegia) beti aztertzailearen analisiaren arbitrariotasunaren menpe legokeela iruditu zait. Nahiago izan dut, beraz, irizpide objektiboetan oinarri daitekeen parametro bat aztertzea, irakurleari gaztigatuz hemen neurtu den hurrenkeraren eskusiboki sintaktikoa, ez pragmantikoa, izan dela.

36. Adibidez, *hasi nintzen liburua irakurtzen* esaldian, batetik VO bat dugu (*hasi nintzen ... irakurtzen*), eta bestetik OV bat (*liburua irakurtzen*). *Hori esanda*, edo *etxetik etorri* bezalako egitura absolutuak ere zenbaketan sartzen dira.

37. Baina kasu honetan ez *hori esanda* bezalako egitura absolutuak.

	OsV / VOs	OV / VO	OsLuzea.V / V.OsLuzea	(OsV / VsO) _{Menp}
Zumarragaren gutuna (1537)	32 / 16 (%66,7 / %33,3)	17 / 7 (%70,8 / %29,2)	5 / 3 (%62,5 / %37,5)	11 / 4 (%73,3 / 26,7)
Refranes y Sentencias (1596)	248 / 187 (%57 / %43)	128 / 89 (%59 / % 41)	6 / 10 (%37,5 / %62,5)	56 / 26 (%68,3 / %31,7)
Mikoletareren elkarrizketak (1653)	90 / 144 (%38,5 / %61,5)	22 / 81 (%21,4 / %78,6)	2 / 24 (%7,7 / %92,3)	20 / 31 (%39,2 / %40,8)
Viva Jesús (XVII. m.)	85 / 131 (%39,4 / %40,6)	41 / 68 (%37,6 / %62,4)	0 / 17 (%0 / %100)	36 / 34 (%51,4 / %48,6)
Lazarraga, prosa pasarteak (~1600)	236 / 218 (%52 / %48)	110 / 110 (%50 / %50)	13 / 67 (%16,2 / %83,8)	118 / 79 (%59,9 / %40,1)
Leizarraga, San Lukas, I-X (1571)	557 / 564 (%49,7 / %50,3)	240 / 266 (%47,4 / %52,6)	9 / 106 (%7,8 / %92,2)	254 / 123 (%67,3 / %32,7)
Etxauz-en gutuna (1584)	22 / 4 (%84,6 / %15,4)	14 / 2 (%87,5 / %12,5)	1 / 3 (%25 / %75)	8 / 2 (%80 / %20)
Voltaire-ren elkarrizketak (~1620)	326 / 333 (%49,7 / %50,3)	129 / 227 (%36,2 / %63,8)	5 / 55 (%8,3 / %91,7)	88 / 37 (%70,4 / 29,6)
Tartas, OHB, 4. kap., 1. arr. (1666)	334 / 178 (%81,1 / %18,9)	104 / 98 (%51,5 / %48,5)	2 / 48 (%4 / %96)	116 / 52 (%69 / %31)